

GOI MAILA – B2

MAILA AURRERATUA hizkuntzen *Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren B2ri* dagokio: *ikasketa, irakaskuntza eta ebaluaziorako (EEMB)* eta marko horretan “*Menderatze-maila*” esaten zaio (hurrengo mailari, C1i alegia, “*gaitasun operatibo eraginkorra*” esaten zaio).

Helburu orokorrak

Helburu espezifikoak

Ahozko eta idatzizko elkarreragina
Entzunaren ulermena
Irakurriaren ulermena
Mintzamena
Idazmena

Gaitasun soziokulturala eta soziolinguistikoa

Gaitasun linguistikoa

Gaitasun estrategikoa

Zein komunikazio-jarduera egiten dira?

1.1. Ahozko ulermen-jarduerak

A. Elkarreraginean

B. Entzuteko

1.2. Irakurriaren ulermen-jarduerak

A. Elkarreraginean, gutunak eta oharrak

B. Irakurtzeko

Orientazioa eta informazioa

Arrazoiketa

Dibertimenduzko irakurketa

1.3. Ahozko adierazpen-jarduerak

A. Elkarreraginean

Elkarrizketak

Eztabaidak eta debate formalak

Negoiazioak

Informazioa trukitzea

Elkarrizketak

Diskurtsoa kontrolatzea

B. Hitz egiteko

Deskripzioa eta narrazioa

Jende aurrean hitz egitea

1.4. Idatzizko adierazpen-jarduerak

A. Elkarreraginean

B. Adierazteko

Txostenak, iritzi- eta

Sormenezko idazketa

Nolako testuak irakurtzen dituzte?

Nolako testuak entzuten dira?

Nolako testuak ekoizten dira?

Hitz egiteko

Idazteko

Zein gaitasun behar dira komunikazio-jarduerak burutzeko?

Gaitasun soziolinguistikoa

Diskurtsorako gaitasuna

Egoerara egokitzea: erregistroa

Ideien koherentzia eta antolaketa testu mota kontuan hartuta:

Konexio- eta erreferentzia-baliabideak:

Gaitasun estrategikoa:

1. Ahozko eta idatzizko ulermenaren estrategiak

Planifikazioa

Gauzatzea.

Lexikoa:

2. Ahozko eta idatzizko adierazpenaren estrategiak

Planifikazioa

Gauzatzea

3. Ahozko eta idatzizko elkarreraginezko estrategiak

Planifikazioa

Gauzatzea

Gaitasun linguistikoa

Baliabide Formalak

1. GRAMATIKA

PERPAUSA
PERPAUS ELKARTUAK
DEKLINABIDEA
IZEN SINTAGMA
ADITZ SINTAGMA
ADBERBIOA
LOTURAK

Lokailuak
Preposizioak eta posposizioak

2. DISKURTSOA

Kohesioa:
Antolakuntza
Elkarrizketa
Deixia
Kortesia:
Inferentzia
Tematizazioa, fokalizazioa

3. LEXIKOA ETA SEMANTIKA

Hiztegia
Hitzen sorrera
Esanahia

4. FONOLOGIA ETA ORTOGRAFIA

Baliabide fonikoak
Ortografia
- Puntuazioa.

Nola ikasten da?

Norberak ikasteko estrategiak

EBALUAZIOA

Goi Maila

Ahozko eta idatzizko elkarreragina
Ahozko ulermena
Idatzizko ulermena
Mintzamena

Ebaluazio irizpideak:

Ahozko adierazpena eta elkarreragina

1. *Komunikazio-eraginkortasuna:*
2. *Diskurtsorako gaitasuna:*
3. *Hizkuntzaren erabilera:*
4. *Zuzentasun formala:*

Idatzizko adierazpena eta elkarreragina

1. *Komunikazio-eraginkortasuna:*
2. *Diskurtsorako gaitasuna:*
3. *Hizkuntzaren erabilera:*
4. *Zuzentasun formala:*

GOI MAILA – B2

MAILA AURRERATUA hizkuntzen *Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren B2ri dagokio: ikasketa, irakaskuntza eta ebaluaziorako* (EEMB) eta marko horretan “Menderatze-maila” esaten zaio (hurrengo mailari, C1i alegia, “*gaitasun operatibo eraginkorra*” esaten zaio).

EEMBK B2 mailan honako hau azpimarratzen du: gaitasuna izatea **eraginkortasunez argumentatzeko** eta **eroso moldatzeko**, eta baita ere **hizkuntzari buruzko ezagutza maila berria** izatea.

Bertakoei irribarrerik eragin gabe eta haserrarazi gabe komunikatzeko, eta aldi berean bertako hitzunez euren artean hitz egiten duten modua aldarazi gabe komunikatzeko, jariora eta naturaltasuna behar da. Trebetasun horiek garatzeko hizkuntza praktikan jarri behar da nahitaez, **komunikazio-jardueren** bidez. (→ Zein komunikazio-jarduerak egiten dira?)

Beraz, gelako lanek komunikazio-jarduerak egitea eskatzen dute. Era berean, jarduerak horiek **testuetan** oinarritzen dira eta/edo testuak sortzen dituzte (→ Nolako testuak irakurtzen, entzuten eta sortzen dira?)

Ikaslearen autonomia oinarritzakoa da ikasketa-prozesuan; zenbat eta ikasketa-maila handiagoa izan, orduan eta autonomia-maila handiagoa behar da. Hizkuntza erabiliz, ikasleak aldez aurretik ikasitako baliabideak eta ezagutza aktibatu egiten ditu, eta **komunikazio estrategietara** jotzen du (→ Nolako gaitasunak ikasten ditu? Gaitasun estrategikoa) Aurrera egiteko, **ikasketa-estrategiak** erabiltzen ditu (→ Nola ikasten dira?) eta bere buruari zuzenketak egiteko gaitasuna gehiago garatzen du.

Komunikazioak funtzionatu dezan, kontuan hartzen dira **alderdi soziokulturalak** (esaterako, hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako gorputz-lengoaia, baloreak nahiz arauak) eta **alderdi pragmatikoak** (esaterako, ahoz eta idatziz emandako testuaren antolaketa). Gauza horiek jakitea eta horiez jabetzea, beste baliabide linguistiko batzuk (**gramatika eta hiztegia**) menperatzea bezain garrantzitsua. Egituraren alorreko alderdiak ezin daitezke bereiztu kulturaren eta pragmatikotasunaren testuingurutik. (→ Zein gaitasun ikasi behar dira komunikazio-jarduerak burutzeko?)

MAILA AURRERATUA bi ikastaroz (MAILA AURRERATUA 1 eta 2) osatutako zikloa da guretzat. Bi ikastaroen ondoren, ikasleak helburu orokorrak zein espezifikokoak bete ditzake (→ Zeintzuk dira helburu orokorrak? Zeintzuk dira helburu espezifikokoak?).

Bi ikastaroetan zehar ikasleak komunikazio-jarduerak burutzen ditu. Jarduera horietan gramatika-egitura berriez jabetzen da –aurreko ikasturteetan ikasitakoaz gainera-. Helburua da zehaztasun handiagoaz eta egokiago ulertzea, hitz egitea eta idaztea. Dena den, bi ikastaroetan zehar hizkuntza modu aktiboan eta behin eta berriro erabili ezik, ezin da jariora eta naturaltasuna lortu. Honenbestez, helburuak ez dira berdinduko bi ikastaroetan zehar, helburu gehiago lortzen delako praktikaren eraginez; eta hori islatu egiten da **azterketa-irizpideen** eskari-mailatan.

GOI MAILA – B2

MAILA AURRERATUA hizkuntzen *Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren B2ri dagokio: ikasketa, irakaskuntza eta ebaluaziorako* (EEMB) eta marko horretan “Menderatze-maila” esaten zaio (hurrengo mailari, C1i alegia, “*gaitasun operatibo eraginkorra*” esaten zaio).

PROGRAMAREN ANTOLAMENDUA

Helburu orokorrak

Helburu espezifikoak

Ahozko eta idatzizko elkarreragina
Entzunaren ulermena
Irakurriaren ulermena
Mintzamena
Idazmena

Gaitasun soziokulturala eta soziolinguistikoa

Gaitasun linguistikoa

Gaitasun estrategikoa

Zein komunikazio-jarduera egiten dira?

1.1. Ahozko ulermen-jarduerak

A. Elkarreraginean

B. Entzuteko

1.2. Irakurriaren ulermen-jarduerak

A. Elkarreraginean, gutunak eta oharrak

B. Irakurtzeko

Orientazioa eta informazioa

Arrazoiketa

Dibertimenduzko irakurketa

1.3. Ahozko adierazpen-jarduerak

A. Elkarreraginean

Elkarrizketak

Eztabaidak eta debate formalak

Negoziazioak

Informazioa trukatzea

Elkarrizketak

Diskurtsoa kontrolatzea

B. Hitz egiteko

Deskripzioa eta narrazioa

Jende aurrean hitz egitea

1.4. Idatzizko adierazpen-jarduerak

A. Elkarreraginean

B. Adierazteko

Txostenak, iritzi- eta

Sormenezko idazketa

Nolako testuak irakurtzen dituzte?

Nolako testuak entzuten dira?

Nolako testuak ekoizten dira?

Hitz egiteko

Idazteko

Zein gaitasun behar dira komunikazio-jarduerak burutzeko?

Gaitasun soziolinguistikoa

Diskurtsorako gaitasuna

Egoerara egokitzea: erregistroa

Ideen koherentzia eta antolaketa testu mota kontuan hartuta:

Konexio- eta erreferentzia-baliabideak:

Gaitasun estrategikoa:

1. Ahozko eta idatzizko ulermenaren estrategiak

Planifikazioa

Gauzatzea.

Lexikoa:

2. Ahozko eta idatzizko adierazpenaren estrategiak

Planifikazioa

Gauzatzea

3. Ahozko eta idatzizko elkarreraginezko estrategiak

Planifikazioa

Gauzatzea

Gaitasun linguistikoa

Baliabide Formalak

1. GRAMATIKA

PERPAUSA
PERPAUS ELKARTUAK
DEKLINABIDEA
IZEN SINTAGMA
ADITZ SINTAGMA
ADBERBIOA
LOTURAK

Lokailuak
Preposizioak eta posposizioak

2. DISKURTSOA

Kohesioa:
Antolakuntza
Elkarrizketa
Deixia
Kortesia:
Inferentzia
Tematizazioa, fokalizazioa

3. LEXIKOA ETA SEMANTIKA

Hiztegia
Hitzen sorrera
Esanahia

4. FONOLOGIA ETA ORTOGRAFIA

Baliabide fonikoak
Ortografia
- Puntuazioa.

Nola ikasten da?

Norberak ikasteko estrategiak

EBALUAZIOA

Goi Maila

Ahozko eta idatzizko elkarreragina
Ahozko ulermena
Idatzizko ulermena
Mintzamena

Ebaluazio irizpideak:

Ahozko adierazpena eta elkarreragina

1. *Komunikazio-eraginkortasuna:*
2. *Diskurtsorako gaitasuna:*
3. *Hizkuntzaren erabilera:*

4. Zuzentasun formala:

Idatzizko adierazpena eta elkarreragina

1. *Komunikazio-eraginkortasuna:*
2. *Diskurtsorako gaitasuna:*
3. *Hizkuntzaren erabilera:*
4. *Zuzentasun formala:*

Azterketa etapropa ereduak.

Helburu orokorrak

- Hizkuntza erabiltzen duten hiztunekin naturaltasunez komunikatzeko, zehaztasunez eta erraztasunez hitz egitea.
- Ahoz zein idatziz ulertzea, adieraztea eta elkarreragitea, baliabide linguistikoak ondo menperatuz.
- Ikasleari azaldu dakizkiokeen alderdi soziokulturaletan sakontzea eta egoki jokatzeko, kasuan kasuko keinuak eginez, jarrerak hartuz eta erregistroa erabiliz.
- Baliabide linguistiko berriak erabiltzea, alde aurretik ikasitakoak ahaztu gabe.
- Akatsei buruzko hausnarketa egitea, norberen burua zuzendu ahal izateko.
- Norberari egokiak iruditzen zaizkion komunikazio- eta ikasketa-estrategiak nahita erabiltzea.
- Ikasketa modu autonomoan planifikatzea.

Helburu espezifikokoak

Ahozko eta idatzizko elkarreragina

- Naturaltasunez eta eraginkortasunez elkarreragitea hainbat motatako elkarrizketetan, salerosketetan eta eztabaidetan. Noizean behin nahiko jario handiz aritzea, egoerak eskatzen duen erregistroa erabiliz eta aidetasunez.
- Solasaldietan, salerosketetan, elkarrizketetan eta eztabaidetan parte hartzea; argi mintzatuz, eta ideiak, iritziak, itunak, argudioak, aholkuak eta informazio konplexua egoki trukatzuz.
- Posta-trukea egitea, berriak eta iritziak eraginkortasunez azalduz, gertaera zein esperientzia pertsonalen garrantzia azpimarratuz, eta, egoeraren arabera, sentimenduak zein emozioak adieraziz.

Entzunaren ulermena

- Hizkuntzaren aldetik konplexuak diren mezuak ulertzea (bertakoen arteko elkarrizketak, hitzaldiak, txostenak, adierazpenak, aurkezpen akademikoak eta profesionalak), informazioaren edukia zehaztuz eta hiztunen ikuspuntuak zein jarrerak nolakoak diren jakinez; atzean zatara handiegirik ez badago behintzat, eta diskurtsoaren egituraketa desegokia eta hizkuntzaren erabilera desegokia ez bada behintzat.

Irakurriaren ulermena

- Gutunak, argibideak, iritzi-artikuluak, artikulu espezializatuak eta literatura garaikideko testu literario luzeak autonomiaz irakurtzea, abiadura eta estiloa helburuetara egokituz; jakinik, halaber, zeintzuk diren komunikazio-helburuak, funtsezko informazioa, puntu garrantzitsuenak, osagarriak eta zehetasunak, argumentuaren haria, gertaerak eta iritziak.

Mintzamena

- Testuak sortzea. Testuok luzeak ere izan daitezke. Gaiak orokorrak nahiz espezialitatekoak izan daitezke. Ondo antolatuta egoteaz gainera, koherenteak izango dira. Helburua da ideiak argi kontatzea, deskribatzea, informatzea, azaltzea eta argudiatzea; ideiak zabalago azaltzeko eta hobeto babesteko, gauza garrantzitsuak azpimarratuko dira.
- Diskurtso malgua eta zuzena egitea, ulertzeko arazorik izango ez duena; argi eta naturaltasunez ahoskatuz eta jario handiz, zati luze eta konplexuetan ere bai.

Idazmena

- Testu argiak, zehatzak, koherenteak eta kohesiodunak idaztea hainbat gairi buruz, zehaztasunez eta lexiko aberatsa eta gramatika zuzena erabiliz.
- Hainbat jatorritako informazioa laburbiltzea eta aztertzea; gertaerak kontatzea; testu mota eta komunikazio-egoera aintzat hartuta, deskribatzea, argumentatzea, alderatzea eta ondorioak ateratzea.

Gaitasun soziokulturala eta soziolinguistikoa

- Hizkuntza erabiltzen duten herrialdeetako alderdi soziokulturaletan sakontzea, bereziki hizkuntzaren inguruko gaietan. Segurtasunez eta naturaltasunez jokatzeko, nabarmendu gabe, bertakoen harreman mota berdina izanik, egoera bakoitzerako jarrera eta jokabide azalduz; mezuaren estiloa, enfasia eta formulazioa egokituz.

Gaitasun linguistikoa

- Baliabide linguistiko asko eta anitzak erabiltzea (joskera konplexua ere bai), testu zehatzak, argiak eta kohesiodunak sortzeko. Egoerak eta gaiak era askotakoak izan daitezke. Norberen mugak ezkutatzeko estrategiak erabiliko ditu.
- Malgutasunez egokitzea norabide-, estilo- eta enfasi-aldaketetara, nahiz eta oraindik zalantzak izan eta itzulinguruka ibili.
- Baliabide linguistikoak ia akatsik gabe erabiltzea, nahiz eta egitura konplexuetan noizean behin komunikazioa oztopatzen ez duen okerren bat izan. Bere burua zuzentzeko gai da.

Gaitasun estrategikoa

- Ikasketak bere kabuz planifikatzea eta estrategiak nahita erabiltzea.
- Zereginak planifikatzea, egoera bakoitzean eskura dituen baliabide linguistikoak testuinguruan jartzea eta etekina ateratzea, behar dituenak aurkitzea, nola funtzionatzen duten ikustea, inferentziak egitea, trebatzea, zailtasunei aurre egitea, hizkuntza eraikitzea eta informazio-hutsuneak zuzentzea.
- Maila lortzeko behar duen denboraz eta lanaz jabetzea.
- Bere kabuz ikasteko baliabideak egoki aukeratzea.
- Helburuak baloratzea. Aurrera egiteko zailtasunak, akatsak, lorpenak eta baliabideak baloratzea. Horren arabera antolatzea.
- Norberen buruari azterketa egitea, azterketa estandarra egiteko erabiltzen diren metodoen bidez (beharrezkoa balitz, kanpoko laguntasunaz).

Zein komunikazio-jarduera egiten dira?

Hemen komunikazio-jardueren aukera bat dago adibide gisa. Ikus curriculuma..... jardueren deskripzio osoaren berri izateko.

1.1. Ahozko ulermen-jarduerak

A. Elkarreraginean

- Eztabaida formalak jarraitzea, hiztun bakoitzaren iritziak, arrazoiak eta komunikazio-helburuak ulertuz.
- Keinuen, isiluneen, geldialdien, etenen, intonazioaren eta tonuaren komunikazio-helburuak jasotzea, nahiz eta ustekabeen iritsi.
- Norberen ulermena kontrolatzea eta argibideak eskatzea.

B. Entzuteko

Elkarrizketak eta eztabaidak

- Bertakoen arteko elkarrizketak eta eztabaidak (gai askori buruzkoak) ulertzea.

Narrazioak, deskripzioak eta aurkezpenak

- Hitzaldietan eta aurkezpenetan ideia nagusiak eta informazioari buruzko ohar zehatzak jasotzea.

Iragarkiak eta argibideak

- Erreferente ezagunak dituzten iragarkien informazioa, kasu batzuetan balizko bigarren zentzua ere bai, eta helburua ulertzea.
- Argibide zehatzak, gai orokorrei zein teknikoei buruzko adierazpenak, eta testuingurudun mezuak ulertzeko gai izatea; betiere, hizkuntza estandarrean eta erritmo arruntan, nahiz eta abstraktuak izan.

Ikus-entzunezko mezuak eta grabatutako materialak.

- Bizitza sozialeko, profesionaleko eta akademikoko grabazioak (hizkuntza estandarrean) ulertzea. Hitzunaren ikuspuntuak, jarrerak eta informazioaren edukia nolakoak diren jakitea.
- Egitura eta hizkera oso zaila ez duten filma eta antzezlan gehienak ulertzeko gai izatea.

1.2. Irakurriaren ulermen-jarduerak

A. Elkarreraginean, gutunak eta oharrak

- Gutun pertsonalak eta formalak nahiz bestelako idazkiak ulertzea. Hainbat gauzaz erraztasunez jabetuz: ideia nagusiak eta bigarren mailakoak, xehetasunak, ikuspuntuak, egileak nabarmendutako gauzak eta komunikazio-helburuak.
- Gertaera, egoera fisiko, aldarte, sentimendu eta desioen deskribapena ulertzea, lagunekin posta-truke erregularra lortu ahal izateko.
- Solaskidearen hurbiltasuna igartzea. Horretarako harreman mota, kortesia-formulak, informazioa eta erregistroa hartuko dira aintzat.
- Idazki formal eta arrunten formatuak nolakoak diren jakitea. Informazio garrantzitsua eta beharrezko xehetasunak erraz jasotzea.

B. Irakurtzeko

Orientazioa eta informazioa

- Hainbat jatorritako testu luzeetan xehetasun adierazgarriak erraz aurkitzea.
- Albisteen, artikuluen eta txostenen (hainbat gai profesionalen ingurukoak) edukia zein den eta nolako garrantzia duten arazorik gabe jakitea eta azterketa zehatzagoa beharrezkoa den erabakitzea.
- Hainbat motatako albisteak, artikulak eta erreportajeak ulertzea eta erraz jasotzea (informazio garrantzitsuena, egileak nabarmendutakoa eta beharrezko xehetasunak).

Arrazoiketa

- Artikulu espezializatuagoetan gauza garrantzitsuak, tesiak eta egileak nabarmendutakoa ulertzea, nahiz eta hiztegi jo terminologiaren hipotesiak ziurtatzeko.
- Zenbait testuk gai bati buruz ematen dituzten ikuspuntuak alderatzea.
- Publiko zabalarentzat idatzitako zuzenbide- eta administrazio-testuetako informazioa interpretatzea.
- Gai ezagunei buruzko grafikoak eta eskemak interpretatzea.
- Argudio-testuetako tesiak, argudioak eta ondorioak zeintzuk diren jakitea.

Dibertimenduzko irakurketa

- Zehatz-mehatz ulertzea ikasleari interesatzen zaizkion gaur egungo literatura-testuetako argumentua, gaia eta pertsonaien ezaugarriak.
- Testu batean kulturari egindako aipamen esplizituak zeintzuk diren jakitea eta, erraza bada, inplizituak ere aipatzea.

1.3. Ahozko adierazpen-jarduerak

A. Elkarreraginean

Elkarrizketak

- Gai orokor gehienei buruzko elkarrizketa luzeetan parte hartzea, nahiz eta inguruan zarata egon.
- Elkarrizketaren ibilbideari laguntzea, solaskideei lagunduz.
- Egoki hitza hartzea, hitza ematea, esku hartzea eta amaitzea.
- Emozioa igortzea eta gertaera nahiz esperientzia pertsonalen garrantzia azpimarratzea.
- Hainbat sentimendu (ustekabea, zoriontasuna, tristezia, interesa eta ezaxolagabekeria) adieraztea eta horiei erantzutea.
- Norberen ideiak eta iritziak adieraztea, argumentu-ildo konplexuak eta adibideak konbentzitzeko moduan aurkeztea, eta horiek defendatzeko gai izatea.
- Tokiaren, solaskideen eta helburuaren arabera adieraztea eta jokatzeko.
- Giza-harremanetan ohiko kortesia-formak erabiltzea.

Eztabaidak eta debate formalak

- Eztabaida formaletan parte hartzea, jende gehiagori parte hartzeko gonbitea eginez.
- Hitz egiteko txandak egoki erabiltzea.
- Iritziak plazaratzea, hipotesiak botatzea, argumentu-ildo konplexuak aurkeztea, aukerak aztertzea eta erantzutea, aldeko zein aurkako arrazoiak emanez.
- Ideiak, adostasunak, desadostasunak eta iritziak adieraztea, betiere kortesiaz.

Negoiazioak

- Behar duena zehatz azaltzea eta eskatzea; xehetasunei buruzko argibideak eskatuz.
- Gai bat edo arazo bat argitasunez planteatzea; abantailak, desabantailak eta aukerak baloratuz.
- Arazoak eta erreklamazioak (trafiko-isunak esaterako) konpontzea, etxeko kalteak konpontzeko kalte-ordainak eskatzea, eta abar.
- Kalteak izanez gero, kalte-ordaina eskatzea eta emakidak negoziatzea.
- Egindako transakzioak modu positiboan edo negatiboan baloratzea (esker ona, asetasuna, zoriona, konponketa ekonomikorako edo beste era bateko eskaria, erreklamazioak).

Informazioa trukitzea

- Familiari, gizarteari eta lanbideari buruzko informazio konplexua (ohikoa ez dena ere bai) jasotzea, aztertzea eta egiaztatzea.
- Mezuak, eskariak eta informazioa fidagarritasunez ematea.
- Prozedura bat nola garatu argi eta zehatz azaltzea.
- Informazio konplexua eta lan arloko aholkuak trukitzea.
- Informazioa eta argudioak laburbiltzea eta adieraztea, jatorria argituz.
- Berba-lagunen galderei erantzutea eta zalantzak argitzea.

Elkarrizketak

- Eraginkortasunez eta jariora erakutsiz elkarrizketatzea; haria galdu gabe eta era interesgarrian erantzunez, egindako galderatik urrunduz une batez.

Diskurtsoa kontrolatzea

- Ulertzen ez diren zatien berri ematea.
- Solaskideek ulertu dutela ziurtatzea.
- Berri bat egiaztatzea edo gezurtatzea. Informazio bat zuzentzea.
- Norberen buruari zuzenketak egitea.
- Ulermena ziurtatzea, gauzak errepikatuz, berriro formulatuz eta parafraseatuz.
- Esanahiak argitzea, hainbat baliabide erabiliz.
- Ulermena ziurtatzea, solaskideak esan duena norberen hitzez errepikatuz.

B. Hitz egiteko

Deskripzioa eta narrazioa

- Ikaslearen espezialitateko gai askori buruzko deskribapen eta aurkezpen luzeak, argiak eta zehatzak jario nahikoaz egitea. Ideiak indartzeko baliabide osagarriak eta adibide argigarriak erabiliko ditu.
- Liburu eta filmetako argumentuak eta zatiak kontatzea.
- Esperientziei, ametsi, itzaropenei, desioei, benetako gertakariari eta alegiazkoei buruzko deskribapen objektibo eta subjektibo zehatzak egitea, sentimenduak eta erreakzioak deskribatuz.
- Istorioak kontatzea, denboraren ikuspegia aintzat hartuta eta logikari jarraituta, ekintzak lotuz.
- Argudioak, arrazoiak eta azalpenak (iritziei, planei eta ekintzei buruzkoak) garatzea.
- Publiko zabalari eskainitako ikuskizun edo gertaera bati buruzko iritzi kritiko arrazoitua ematea.

Jende aurrean hitz egitea

- Ideiak azaltzea eta gai orokorreari buruzko iritziak ematea; argitasunez, segurtasunez eta erritmo erregularrez, entzuleari tentsiorik eragin gabe.
- Liburuak, pertsonak eta jende aurreko ekitaldiak aurkeztea, argitasunez eta ondo antolatuta.
- Iritzi bati buruzko aldeko eta aurkako arrazoiak azaltzea.
- Argudioak argi ematea eta ikuspuntuaren alde jardutea, ideia osagarriak eta adibideak erabiliz.
- Diskurtsoa egituratzea eta datuak elkarri lotzea, malgutasunez eta koherentziaz.
- Denbora-, espazio- eta logika-loturak nahiz enfokea argi uztea.

1.4. Idatzizko adierazpen-jarduerak

A. Elkarreraginean

- Hainbat helburu lortzeko idaztea: Zoriontzeko, gonbidatzeko, baieztatzeko, aitzakiak jartzeko, eskertzeko, eskariak egiteko, barkamena eskatzeko, agurtzeko, aurkezteko, doluminak emateko. Betiere, hizkera egokia erabiliz eta kasuan kasuko hartzaileari egokituz.
- Gai zehatzei eta abstraktuei buruzko informazioa, ideiak eta ikuspuntuak ematea; informazioa egiaztatzea; galderak egitea; eta arazoak azaltzea zehaztasun nahikoaz.
- Pertsona jakinei eta taldeei (foroak, blogak, aldizkariak, eta abar) idaztea; iritzia emateko, berri bat jakinarazteko zein galdera bat erantzuteko.
- Gutunak idaztea, emozioen berri emateko eta zenbait esperientziak norberen bizitzan duten garrantzia aipatzeko.
- Gutunak, oharra eta mezuak idaztea, informazioa emateko eta berehalako informazioa eskatzeko. Zerbitzuekin zerikusia duten pertsonari, irakasleari eta inguruko pertsonari eskatuko die informazio hori. Azpimarratu egingo ditu garrantzizkoak iruditzen zaizkion gauzak.
- Gutun formalak eta administrazio-gutunak idaztea, zerbitzu bat eskatzeko nahiz eskertzeko, erreklamazio bat egiteko zein datuak zuzentzeko.

B. Adierazteko

Txostenak, iritzi- eta informazio-testuak

- Gai ezagunei buruzko iritzia segurtasun nahikoaz ematea eta arrazoitzea.
- Ikaslearen espezialitateko gai askori buruz testu argiak eta zehatzak idaztea, hainbat iturritako informazioa eta argudioak laburbilduz eta aztertuz.
- Gertakari ezagunei buruzko txostenak prestatzea, egoera zehatzuz, hartutako neurriak arrazoituz eta gauza garrantzitsuak azpimarratuz.
- Lan-plangintza zehatzak eta ondo antolatutakoak aurkeztea.
- Arazo baten balizko konponbideak alderatzea eta baloratzea.
- Ikasleari dagozkion arloei buruzko jarraibide zehatzak erredaktatzea.
- Lan-eskariak eta erreklamazioak erredaktatzea. Egoera zehatzari egokitutako *curriculum vitae* idaztea.
- Ikuspuntu baten aldeko edo aurkako saioak eta arrazoitutako txostenak idaztea, aukera bakoitzaren abantailak eta desabantailak deskribatuz, gauza garrantzitsuenak azpimarratuz eta lagungarriak izan daitezkeen xehetasunak eskainiz.
- Informazioa, argudioak eta arazo baten inguruko konponbideak laburbiltzea.

Sormenezko idazketa

- Gertaera eta esperientzia errealak nahiz alegiazkoak kontatzea, argi eta zehaztasunak emanez. Horretarako egituratutako testuak idatziko ditu, ideien arteko lotura azpimarratuz eta ezarritako arauetara jarraituz.
- Filmei, liburuei, antzezlanei, kontzertuei, eta abarri buruzko berri laburrak idaztea.
- Biografiak idaztea.
- Intereseko gai orokorrei buruzko iritzi-testuak (zuzendariari igorritako gutunak, blogak, eta abar) idaztea, ikuspuntuak zehatz azalduz eta, beharrezkoa iritzi gero, adibideak emanez.
- Objektuei, gertaerei, tokiei eta beste gauza batzuei buruzko iragarkiak sortzea.
- Literatura-testuak sortzea. Istorio bat kontatzea.

Nolako testuak irakurtzen dituzte?

Maila honetako testuek egitura argia izaten dute. Informazio esplizitua ematen dute, esplizitua ere bai, baldin eta erraz ulertzeko modukoak badira. Testuak ondo ulertzeko, hizkuntzari loturiko kultura ezagutu behar da neurri batean.

- Testu sozial formalak eta informalak: (zoriontzeko, gonbidatzeko, onartzeko, uko egiteko, eskertzeko, eskatzeko, barkamena eskatzeko, agurtzeko, aurkezteko, zoriontzeko eta doluminak emateko).
- Gutun eta mezu pertsonalak (SMSak, mezu elektronikoak, faxak, gutunak, txatak) Gutun formalak, pertsonalak, akademikoak zein profesionalak (gutunak, mezu elektronikoak, faxak) Administrazioaren agiri estandarizatuak.
- Hiztegiak, entziklopediak.
- Informazioa lortzeko galdera-sortak.
- Web orriak, blogak eta antzekoak.
- Liburuxkak eta prospektuak (turismo eta merkataritza alorrekoak).
- Errezetak.
- Jarraibideak eta erabilpen-arauak.
- Lan-iragarkiak.
- Publizitate-iragarkiak.
- Txostenak.
- Prentsa: albisteak, dibulgazio-artikuluak eta espezialitateari buruzko artikuluak, erreportajeak, elkarrizketak, editorialak, iritzi-artikuluak.
- Administrazioaren testu konbentzionalak.
- Komikiak.
- Abestien hitzak.
- Horoskopoak eta antzekoak.
- Poemak.
- Biografiak.
- Kontakizunak, ipuinak eta nobelak.

- Hizkuntza estandarrez idatzitako antzezlanak.

Nolako testuak entzuten dira?

Maila honetako testuek egitura argia izaten dute. Informazio esplizitua ematen dute, esplizitua ere bai, baldin eta erraz ulertzeko modukoak badira. Testuak ondo ulertzeko, hizkuntzari loturiko kultura ezagutu behar da neurri batean. Entzuteko testuek distortsio akustiko txikia izaten dute. Ahoskera estandarra, edo estandarraren gertukoa, izaten da; erritmoa, berriz, ez da oso azkarra izaten.

- Elkarrizketa informalak, atzean zaratatxoak dituztenak eta hainbat gairi buruzkoak: pertsonalak, orokorrak, sozialak, akademikoak, profesionalak eta asialdikoak. Elkarrekin trukatu dituzte esperientziak, iruzkinak, ikuspuntuak eta informazioa.
- Elkarrizketa formalak. Ohikoak ez diren gai buruzkoak ere bai.
- Telefono bidezko elkarrizketa formalak eta informalak eta bideokonferentziak.
- Eztabaidak.
- Iruzkinak, iritziak eta arrazoiketak, kultura arloko eta gaur egungo gai ezagunei buruzkoak.
- Gizarte-bilerak eta lan-bilerak.
- Merkataritza- eta administrazio-izapideak.
- Elkarrizketak.
- Jarraibideak eta arauak.
- Testuinguruan kokatutako erakusketak, aurkezpenak, deskripzioak eta narrazioak.
- Gai nahiko ezagunen inguruko hitzaldiak.
- Antzezpenak, hizkuntza estandarrez.
- Erantzungailuan grabatutako argibideak eta mezuak.
- Publizitatea (irratia, telebista, eta abar).
- Gaur egungo gertaerak eta gaiak.
- Eguraldi-albisteak.
- Kontakizunak.
- Abestien hitzak (ondo ahoskatutakoak).
- Dokumentalak, telebista- eta bideo-erreportajeak, gai orokorrei buruzkoak.
- Telesailak.
- Hizkuntza estandarrez egindako filmak.

Nolako testuak ekoizten dira?

Hitz egiteko

- Telefono bidezko elkarrizketa formalak eta informalak, eta bideokonferentziak.
- Kulturaren esparruko eta gaur egungo gai ezagunei buruzko iruzkinak, iritziak eta arrazoiketak egitea.
- Mezuak argitzea, azaltzea, errepikatzea, laburtzea nahiz itzultzea.
- Elkarrizketak.
- Jarraibideak eta arauak.
- Pertsonak, objektuak, jarduerak, zerbitzuak, tokiak, bizi-baldintzak, interesak, sentimenduak eta alderdi soziokulturalak deskribatzea eta alderatzea.
- Gertaerak, esperientziak, pasadizoak eta proiektuak zehatz kontatzea.
- Istorioak kontatzea.
- Gaiak aurkeztea.
- Gai ezagunei buruzko ideiak eta jarduerak azaltzea eta arrazoitzea.
- Liburuak, telebista-programak eta filmak baloratzea.
- Ekitaldiak, liburuak, filmak eta pertsonak aurkeztea.

Idazteko

- Testu sozial formalak eta informalak (zoriontzeko, gonbidatzeko, onartzeko, uko egiteko, eskertzeko, eskatzeko, barkamena eskatzeko, agurtzeko, aurkezteko, zoriontzeko eta doluminak emateko).
- Gutun eta mezu pertsonalak (SMSak, mezu elektronikoak, faxa, gutunak, txata); informazioa, interesak, premiak, iritziak, iruzkinak, erreakzioak eta sentimenduak trukatzeko.
- Arlo pertsonaleko eta ikasketa nahiz lan arloko gutun formalak (gutunak, mezu elektronikoak, faxa); informazioa eskatzeko zein igortzeko, laguntza nahiz zerbitzu bat eskatzeko, arazo baten berri emateko, erreklamazio bat egiteko nahiz zerbait eskertzeko.
- Gai ezagunei buruzko mezuak txatetan eta foro birtualetan.
- Gai ezagunei buruzko iritzi- eta arrazoiketa-testuak.
- Txostenak (egoera bat aurkeztea. Aukera baten abantailak eta desabantailak).
- Esperientziak, gertakariak, istorioak eta benetako nahiz alegiazko gertakariak kontatzea.
- Pertsonak, objektuak, jarduerak, prozesuak, zerbitzuak eta tokiak deskribatzea.
- Planak eta egitasmoak deskribatzea.
- Biografia.
- Laburpena.
- Liburu bat aurkeztea.
- Eskema.
- Errezeta.
- Jarraibideak.
- Lan-eskaria.
- Iragarkia.
- Curriculum vitae.
- Egunkaria.

Zein gaitasun behar dira komunikazio-jarduerak burutzeko?

Gaitasun soziolinguistikoa

- Testuetan formula sozial egokiak erabiltzea: mezu eta gutun pertsonalak (SMSak, mezu elektronikoak, gutunak); testu sozial laburrak eta tipifikatuak (gonbiteak, eskerrak, barkamen-eskariak, zerbitzu-eskariak); gutun formalak; galdera-sortak; txostenak; oharrak; lan-, ikasketa- eta aisialdi-mezuak; eta foro birtualetan parte hartzea.
- Tratatzeke erak eta kortesia-adierazpenak ezagutzea eta erabiltzea, kasuan kasuko formaltasunari eta informaltasunari egokituz.
- Tratamendu-aldaketaren balioa zein den jakitea (konfiantza, begirunea, hurbilketa eta urrunketa).
- Eguneroko egoeretako formula edo esaldi topikoak erabiltzea.
- Ezezagunekin topo egiterakoan, kulturaren berezko jarrera (posizioa, begiradak, distantziak, eguraldiari buruzko galderak, isiltasuna) eta hizkera erabiltzea.
- Norberen kulturakoak ez diren keinuak ezagutzea eta erabiltzea.
- Hizkuntza estandarraren erregistroa (bai formaltasunez, bai informaltasunez) txukuntasunez eta erraztasunez erabiltzea.
- Egoera formalak eta informalak bereiztea eta kultura horretan ohikoa den elkarreragitera egokitzea (ofizialak, errituzkoak, formalak, informalak, intimoak).
- Ahozko hizkuntza eta idatzizkoa bereiztea.
- Sarri esaten diren esamolde batzuen bigarren zentzua eta esanahi itsusia jakitea.
- Beste kulturatan iraingarriak eta tabuak izan daitezkeen alderdiak eta adierazleak zeintzuk diren jakitea.
- Ohiko esamoldeen eta atsotitzen esanahia jakitea eta erabiltzea.

Diskurtsorako gaitasuna

Egoerara egokitzea: erregistroa

- Mezua ulertzeko eta sortzeko, testuingurua kontuan hartzea.

Ideien koherentzia eta antolaketa testu mota kontuan hartuta:

- Ideiak koherentziaz antolatzea (denborari, espazioari eta logikari dagokionez).
- Komunikazio-helburua betetzeko behar adina informazio eta informazio garrantzizkoa eskaintzea.
- Bi aldeek duten informazioa aintzat hartzea, beharreko informazioa eskaintzeko.

Konexio- eta erreferentzia-baliabideak:

- Diskurtsoaren adierazgailuak eta doinu egokia erabiltzea, diskurtsoak aurrera egiten duela adierazteko.
- Denbora- eta toki-adierazpideak erabiltzea, mezua kokatzeko.
- Beharrezkoa ez denean, gauzak ez errepikatzea eta ordezeko baliabideak erabiltzea (elipsia, izenordainak, aditzondoak).
- Lokailuak eta puntuazio-ikurrak erabiltzea.
- Gauzak nabarmentzea, doinua eta ikur grafikoak erabiliz.

Gaitasun estrategikoa:

1. Ahozko eta idatzizko ulermenaren estrategiak

Planifikazioa

- Komunikazio-egoera kokatzea (egoera, berba-lagunak, erregistroa).
- Entzun edo irakurriko denari buruzko hipotesiak egitea, bai komunikazioaren eginkizunaz, bai edukiaz. Horretarako, hainbat gauza hartu behar dira abiapuntu gisa: egoera, testuingurua, irudiak, gaia, titulua, doinua eta formatua.

Gauzatzea.

- Testua aztertzea, bilatzen dugunari erantzuten dion jakiteko.
- Lehenengo eta behin, entzuten eta irakurtzen denaren helburua eta zentzu orokorra ulertzen saiatzea.
- Testua azkar aztertzea, datu espezifikoak bilatzeko; baldin eta hori bada helburua behintzat.
- Edukiari begira arreta jartzea, ondorioak ateratzeko aukera ematen duten funtsezko hitzak aurkitzeko.
- Gai ezagunetan, hitz ezezagunak dituzten esaldien esanahia inferitzea.
- Testuingurutik abiatuta, ulermen-hutsuneak konpontzen saiatzea.
- Ulermena errazteko, osagai linguistikoei eta ez linguistikoei arreta jartzea (irudiak, formatua, intonazioa, keinuak, doinua).
- Irakurgaietan, entzungaietan eta ikasgaietan oharrak idaztea, azpimarratzea eta eskema bat egitea.

Lexikoa:

- Hitz ezezagunen eta zalantzazkoen esanahia asmatzen saiatzea:
 - Ikasleen jakiturian eta egoeran oinarrituta.
 - Testuaren edo esaldiaren zentzu orokorrean oinarrituta.
 - Testuingurutik abiatuta (erredundantziak, azalpenak, adibideak, sinonimoak).
 - Beste hizkuntza batzuen ezagutzatik abiatuta.
 - Gramatikatik eta lexikotik abiatuta (hitz-familiak, gramatika-kategoriak, sintaxi- eta lexiko-konkordantziak, kokapena, letra-larrien erabilera, eta abar).
- Hitz ezezagunen esanahiari buruzko hipotesiak egin ondoren, hiztegia erabiltzea.

Ebaluazioa

- Ondo ulertu duela jakitea eta egiaztatzea.
- Ulertu ez duena azaltzea.

- Mezua hainbat modutan argitzeko eskatzea.
- Hitz eta esamolde berriak gogoratzea eta erabiltzea.

2. Ahozko eta idatzizko adierazpenaren estrategiak

Planifikazioa

- Komunikazio-egoera kokatzea (berba-lagunak, bakoitzak dakitena, egoera, tokia, testu mota), edukiari dagokionez nahiz formari dagokionez egoerara egokitzeke.
- Mezua planifikatzea, ideiak modu koherentean antolatzea.
- Testu mota desberdinak aztertzea, formatura egokitzeke.
- Eskura dituzten baliabideak baloratzea eta mezua moldatzea; bestela, beharrezko baliabideak bilatzea.
- Diskurtsoa sendotzeko esaldiak eta adierazleak gogoan izatea.

Gauzatzea

- Hitz eta esamolde egokiak erabiltzea, arreta erakartzeko, hitza hartzeko eta emateko, hasteko, jarraitzeko, parte hartzera gonbidatzeko, solaskidea inplikatzeko eta elkarriketa amaitzeko.
- Beste batzuek esan dutena argitzeko edo lantzeko eskatzea.
- Elkarreraginean lagundu, norbaitek esandakoa errepikatu eta laburtu, eztabaida bideratzeko.
- Ideiak aukeratzea, komunikazio-proposamen zehatzak betetzeko.
- Adierazpena koherentziaz antolatzea eta lotzea.
- Aukeratutako testu motaren formatura egokitzea.
- Arriskuak hartzea, hizkuntzaz saioak eginez.
- Errutinak erabiltzea, kodea aldatzea (ohartuz), beste hizkuntza bateko hitzak egokitzea eta parafraseatzea (hitz ezagunetatik abiatuta), adibideak ematea, beste modu batez adieraztea.
- Zailtasunak gainditzeko estrategia sozialak erabiltzea: berba-lagunaren laguntza eskatzea, hobeto hitz egiten edo idazten ez jakiteagatik barkamena eskatzea; galdetzeko keinuak, esamoldeak eta zeinuak erabiltzea; eta keinuz zein marrazkiz adieraztea.

Ebaluazioa eta zuzenketa

- Elkarreraginean, keinuei, erreakzioei eta erantzunei erreparatzea, ulertu den jakiteko.
- Norbaitek esandakoa errepikatzea, ulertu dela ziurtatzeko.
- Erabilitako formari buruzko zalantza izanez gero, ziurtatzeko esatea.
- Komunikazioa eteterakoan, beste taktika batez hastea.
- Arazo bat dagoela esanez gero, zuzentzea.
- Arretaz aztertzea ea testuak guk nahi duguna adierazten duen, ideiak koherentziaz antolatuta eta elkarri lotuta dauden.
- Hautatutako testuaren formatura egokitzen den ziurtatzea.

3. Ahozko eta idatzizko elkarreraginezko estrategiak

Planifikazioa

- Solaskideek dakitena eta ez dakitena baloratzea.
- Esaldi arruntak memorizatzea.

Gauzatzea

- Elkarriketa bat hasteko, jarraitzeko eta amaitzeko prozedura sinpleak erabiltzea.
- Eztabaida batean esku hartzea eta hitz egitea, hizkera egokia erabiliz.
- Elkarlanean jardutea.
- Elkarriketa laburtzea eta, horri esker, gaiari ardatza errazago ematea.
- Beste norbaiti parte hartzeko gonbitea egitea.
- Ohiko keinuz eta esamoldez, egoki erreakzionatzea.
- Laguntza eskatzea.

Ebaluazioa eta zuzenketa

- Elkarri ulertzen diogula ziurtatzea.
- Ideien garapena erraztea, esaldiaren zati batzuk berriro formulatuz.

Gaitasun linguistikoa

Gramatika, fonologia eta ortografia arloetako gaitasun linguistikoak komunikatzeko bidea dira. Horiez jabetzeko, jarduerak egin behar dira.

Baliabide Formalak

(Bigarren ikasturteko programazio honetan lehen ikasturterako zehaztu diren edukiak jaso ditugu eta berritasunak dituzten atalak © zeinuaz nabarmendu).

1. GRAMATIKA

Aurreko maila guztietan landutako egituren erabilera sendotu eta sakondu.

PERPAUSA

- Perpaus mota ezberdinen intonazioa.
- Subjektu – predikatu – atributu – komunztaduraren finkatzea. Zalantzarik aditz komunztadurak: *begiratu, deitu, eragin, gonbidatu, itxoin...*; aditzarekin pertsona eta numeroz komunztaduran datozen elementuen elipsia.
- Perpausaren elementuen ordena. Markatua/ez markatua kontzeptuetan sakontzea.
- Zehar agintera aditz jokatuaz (*lehenbailehen buka nezala eskatu zidan*).
- © Harridura perpausak lotura eta baliabide hauek erabiliz: *eskerrak (eskerrak etorri zaren), gaitz erdi, lastima; errepika (gozoagoa da gozoagoa!); erlatiboa (hau sasoiak daukaguna!); baldintza (bazeneki, jakin); eta (zurea da eta!); ere (hori esatea ere!); genitiboa (hura umearen negarra!). Esamolde indargarriak: gero (leloa zara, gero!) eta horratio (ez dut egingo, ez horratio).*
- Interjekzioak: *alajaina!, bai horixe!...*

Perpaus elkartuak

- Izenlagun funtziozko menderakuntza. Erlatibozko perpausak:
 - o *-(e)n + kasu marka (kasu egin esaten dizunari).*
 - o galdegilea + partizipioa (*ez daukat zer jan, nora joan...*).
 - © *-(e)n / -lako (salbatuko diren esperantzarik gabe / galdu direlako zurrumurrua zabaldu da).*
 - © *zein ...bait- / -(e)n (orduantxe agertu zen zakur beltz hura, zein txertatugabea baitzen); non... bait- / -(e)n (zoaz biltegiara, non gorde baititut botilak).*
 - © *-(e)neko (argazki horiek gazte nintzenekoak dira).*
 - © Partizipioaz (*hona hemen ertzainek eskatu agiria*).
 - © Galdegile eta erakuslez osatutako esamoldeak: *zer etorri burura, huraxe esan.*
- Izen funtziozko menderakuntza. Perpaus osagarriak eta zehargalderak:
 - o *-(e)na (ziur gara lortuko duguna), -(e)nik (ez dut esan egingo dudarik).*
 - o Nominalizazioa: *-t(z)ea, -t(z)eari (ez diot beldurrik barregarri geratzeari).*
 - o *beldur izan (beldur naiz ez ote dugun behin betiko galdu).*
 - o desioa, beharra eta abar adierazteko aditzez osatutako osagarriak: jokatu gabeko aditzekin (*nahi al duzu laguntzea?, bihar lehentxoago etortzerik ba al duzu?*); jokatuakoeekin (*lana gaur arratsalderako buka dezazuen behar dugu*).
 - © *ezen ... -(e)la (askotan entzuna dugu ezen gerra garaian gure familiakoek gose gorria pasatu zutela).*
 - © *-(e)nentz (ez dugu erabaki greba egingo dugunentz).*
- Adizlagun funtziozko menderakuntza: Loturak eta denbora/modu korrelazioa:
- Perpaus kontzesiboak:
 - o Jokatuakoei aditzekin osatutako formen erabilera sendotu: *-(e)n arren (egin dezakeen arren, ez du egin nahi), nahiz eta -(e)n (nahiz eta bigarren mailan gauden, burua beti goian), ba-... ere (sinesgaitza bazirudien ere, iritsi ginen*

- azkenean), *-la(rik)* ere (*nahi duen gutzia erosten diotela ere, sekula ez da konformatzen*).
- o Jokatu gabeko aditzekin: *-ta* ere, *-(r)ik* ere (*mesedez eskatuta ere, ez zituen gauzak berehalakoan uzten*), *-(e)z* gero ere (*garaiz iritsiz gero ere, ez zenuen lortuko*), *-agatik* ere (*errepidea ondo ezagutuagatik ere, hobe dugu astiro joatea*).
 - ② Esamolde kontsesiboak: *isunak gorabehera, abiadura ez da gutxitu errepideetan; ametsak amets, errealitatea da aurrean duguna; datorrena datorrela ontzat hartuko dugu*.
- Konparaziozko perpausak:
- o Kualitatea:
 - *honen, horren, hain* (*nola kexa zaitezke hain etxe handia izanda?*).
 - *-(e)n bezain* (*ez da dirudien bezain gaiztoa*).
 - *-(e)n bezalako* (*zaren bezalako izanda, ez zara urruti iritsiko*).
 - ② *ahalik eta, al bait ...-(e)n* (*ahalik eta argien atera fotokopiak, mesedez*).
 - ② *zenbat eta ...-ago ...* [*hainbat / orduan*] eta *...-ago* (*zenbat eta zaharragoa, orduan eta kaskagogoragoa zara*).
 - o Kantitatea:
 - *-(e)n beste, adina* (*nahi duzuen beste jan dezakezue*).
 - *-(e)n besteko, adinako, bezainbesteko* (*ez da normala horrek duen besteko pazientzia izatea*).
 - *-t(z)eko lain, beste* (*nekatzeko lain egin dugu lan*).
 - *honenbeste, horrenbeste, hainbeste* (*ez ezazu horrenbeste hitz egin eta jan!*)
 - ② *-(e)n bezainbat, bezainbeste*
 - ② *ahalik eta gehien / gutxien* (*ahalik eta jende gehien bildu behar dugu ekitaldian*).
 - ② *zenbat eta [gehiago / gutxiago] ... [orduan / hainbat] eta [gehiago / gutxiago]* (*zenbat eta jende gehiago gonbidatu orduan eta opari gehiago jasoko ditugu*).
- Baldintzazko perpausak:
- o Jokatu gabeko aditzen erabilera sakondu:
 - Etorkizuneko irrealak (*esango banizu, ez zenuke sinetsiko*), iraganeko irrealak (*esan banizu, ez zenuen / zenukeen sinetsiko*).
 - Iraganeko irrealak (*berandu iristen banintzen, afaldu gabe uzten ninduten*).
 - ② Etorkizuneko irrealak (*irabaziko badugu, jo ta ke entrenatu behar*).
 - o Jokatu gabeko aditzekin:
 - *-t(z)ekotan* (*gera zaitezke, baina isilik egotekotan*).
 - *ezean* (*agindu bezala egin ezean, ez dugu lana ordainduko*).
 - *ezik* (*bidea erakutsi ezik, nekez aurkituko dugu borda hori*).
 - ② *-t(z)era* (*jakitera, ez nizun ezer esango*).
- Kausazko perpausak:
- o Jokatu gabeko aditzekin:
 - *-(e)la-eta* (*buruko mina zuela-eta, etxera laguntzeko eskatu zidan*).
 - *-(e)nez gero* (*garaipena lortu duzue gero, jai har dezakezue*).
 - ② *-(e)la kausa, zio, bide, medio*: (*edana zela kausa bikotea hautsi egin zen*).
 - ② *zeren ... bait-/-(e)n*: (*ez dizut esan zereren uste bainuen jakinaren gainean zinela*).
 - o Jokatu gabeko aditzekin:
 - *-t(z)eagatik* (*esker ona erakutsi zigun jarrera horri eusteagatik*).
 - *-t(z)earren* (*ordenagailua konpontzearen eman dizkidate botila hauek*).
- Helburuzko perpausak:
- o Jokatu gabeko aditzekin:
 - Subjuntiboak: *erosoago egon zaitezten ekarri dizut buruko*.
 - o Jokatu gabeko aditzekin:
 - *-t(z)eagatik* (*biharko eginkizunak bideratuta uzteagatik geratu naiz*).
 - *-t(z)earren* (*denbora betetzearren matrikulatu naiz gimnasioan*).

- Denborazko perpausak (ikusitako zenbait formen erabilera indartuz):
 - o Aurrekotasuna:
 - partizipioa + orduko (*hizketan entzun orduko ezagutu nau*).
 - -t(z)erako(an) (*hitzaldia bukatzerako bagenekien zer erantzun jasoko genuen*).
 - ② partizipioa + aitzin (*bidea itxi aitzin atera behar dugu*).
 - o Berehalakotasuna:
 - partizipioa + bezain agudo, (*berria jakin bezain agudo abiatu ginen*).
 - partizipioa + eta laster, berehala, agudo (*atea itxi eta laster entzun nuen eztanda*).
 - -takoan (*bazkaria amaitutakoan aterako gara*).
 - -(e)ne(ra)ko (*zelaian agertu zeneko, txistuka hasi ziren ikusleak*).
 - o gerokotasuna:
 - partizipioa + ostean, ondoren, eta gero (*ikusitako beharrekoak ikusi ostean, alde egin genuen*).
 - -(e)netik (*etxea galdu nuenetik, zubipean bizi naiz*).
 - ② -(e)nez gero (*karrera bukatu zuenez gero, ez zuen libururik hartu*).
 - o Aldiberekotasuna:
 - -t(z)ean (*egia entzutean lotsatu egin zen*).
 - -t(z)eaz / -t(z)earekin batera (*zaunkaka hasteaz batera korrika hasi ziren guregana*).
 - ② -la(rik) (*seme-alabei, artean ume zirela, hasi zitzaizen musika irakasten*).
 - o Iraupena:
 - -(e)n artean, bitartean (*haserre zaudeten artean hobe duzue ez elkartzea, adiskidetu bitartean, ez zaituztet gonbidatuko*).
 - -harik eta ... arte (*harik eta sendatu arte, geldi egon beharko duzu*).
 - ② -la(rik) (*pintura lehortu gabe dagoela ez ikutu atea*).
 - o Maiztasuna:
 - -(e)n bakoitzean, guztietan, gehienetan (*ikusitako zaitudan bakoitzean jaten harrapatzen zaitut*).
- Moduzko perpausak:
 - o Jokatu aditzekin:
 - -(e)n, eran, legez, antzera, gisan (*besteek egin duten antzera egizue zeuek ere*).
 - -(e)nez (*lehenago esan dudanez, hori ez da egia*).
 - ba-... bezala (*aberatsak bagina bezala zabilta erruz gastatzen*).
 - -(e)la(rik) (*sofan erdi-etzanda zegoen, hankak mahai gainean zituela; txiklea jaten ari zela hasi zaigu hizketan*).
 - ② bait-... -(e)n (*hori gutxi bailitzan, karneta kendu zidan*).
 - ② -(e)naren arabera (*entzun dudanaren arabera, oker zabilzate*).
 - ② esamoldeak: *dagoen dagoenean, ziren zirenean...* (*obra zegoen zegoenean utzi eta alde egin zuten besterik gabe*).
 - o Jokatu gabeko aditzekin:
 - -t(z)eko moduan (*lanean hasteko moduan nago ni!*).
 - ahala (*orduak aurrera joan ahala, esperantza etsipen bihurtu zen*).
 - -ta, -ik (*ulertu ezinik nabil zergatik egin duzun hori*).
 - -(e)z (*horma urratuz eta urratuz, azkenean agertu ziren margoak*).
 - ② Aditzaren elisioa eginda (*zigarroa ahoan [zekarrela] igo zen autobusera*).
 - ② Partizipioa + bezala, moduan, legez, antzera, arabera (*nagusiak aitortu legez, tratua gaizki egina dago*).
 - ② -(r)iko, -tako moduan, gisan (*esandako moduan saiatu gara egiten*).
 - o Esamoldeak: *nolako...halako* (*nolako eguraldia, halako ekintzak antolatuko ditugu*).
- Ondoriozko perpausak:
 -
 - *hain ... ezen (non) ... bait-/-(e)n* (*hain urruti bizi zara, ezen bisitan joateko gogoia ere joan egiten baitzait*).

- hainbeste ... (hainbeste kantu entzun dut gaur, non isiltasun apur bat eskertuko nizukeen).
- ② halako moldez (halako moldez gogaitu ninduen, non modu txarrean moztu behar izan nion erretolika).

DEKLINABIDEA

- Bokalez zein kontsonantez bukatutako izenak. Arruntak eta bereziak.
- Bereziak landuko dira izenordeak, determinatzaile zehaztugabeak eta erakusleak.
- Kasu guztiak.

IZEN SINTAGMA

- Adjektiboen eta determinatzaileen komunztadura izenarekin eta izenordeekin.

Atributua

- ② *bihurtu, bilakatu, iritzi, izendatu, joan...* eta beste zenbait aditzek eragindako mugagabea.

Izena

- Izen motak eta generoa, numeroa, eta kasua: sakontzea eta zabaltzea.
- Generoa: animalien generoa (*behor/zaldi, ahuntz/aker...*); kasu bereziak (*maisu/maistra, printze/printzesa...*); genero neutroa (*aita-amak, seme-alabak, senar-emazteak...*).
- ② Beste kategoria gramatikalak izen bihurtzea (*Bapo eman digute jan-edana. Haren musikaren ederra ezin gozatu. X delakoak eragin ditu aldaketak*).

Determinatzaileak:

- Artikulu zehaztuak: *entzuleak / entzuleok*.
- Erakusle indartuak: *hauxe, horixe, huraxe, hauexek, horiexek, haiexek; bera, berau, berori, berauek, beroriek, beraiek*.
- Zenbatzaile zehaztuak: zenbait erabilera sendotu: zatikiak (*zortzirena*), ehunekoak (*ehuneko zazpi*), banatzaileak (*seina, bana, ...*), zenbait esapide (*bospasei, hogei(ren) bat, baten bat, gutxi gora-behera, milatik gora...*). Zehaztugabeak: *zenbait, horrenbeste, hainbat, ugari, anitz, franko, dezente, makina bat, ...* Orokorrak: *dena, guztia, oso, bete, oro*.

Izenaren osagarriak

- Hitz elkarketa: *urte amaiera, kale ikuskizunak*.
- Izenlagunen sorrera:
 - Deklinabide kasuei -ko atzizkia erantsita: *zaharrenganako begirunea, tontorrerainoko xidorra, ikasleentzako kopia; guretzakoa falta*.
 - Izena + -ko (*hitzeko gizona*); izena + adjektiboa + -ko (*indar handiko pertsona*); zenbatzailea + -ko: (*bi urteko umea, egun osoko lana, zenbateko prezioa du?...*).
- ② Adjektiboaren leku aldaketak sortutako adierazkortasuna (*gizon bat ederra!; indarra behar da haundia*).
- ② Generoa: Kasu bereziak (*tonto/tuntuna, gizajoa/gaixoa, koitado/koitada, ...*).
- ② Gradua: *-kote (lodikote), -ska (zuriska), -xe (zahartuxe)* atzizkiak.
- ② Adjektiboaren eraldaketa: konparazioa: *are ...-ago (are txikiago, are handiago)*. Hitz elkarketa: izena + adjektiboa (*sudur-luze, odol-bero, esku-zabal*); aditza + adjektiboa (*ulerterraza, sinesgaitza, hasi berri*); adjektiboa + adjektiboa (*txuri-urdin, gazi-geza*).
- Graduatzaile askatuak: adjektiboaren ezkerrean: *biziki, txit, sobera (biziki ederra, txit polita)*; adjektiboaren eskuinean: *samar (gaizto samarra)*.
- Adierazkortasuna: *[xuhur], [harrroa], [pollitta]*.
- Zailtasun bereziko adjektiboak: *bera/berdina, huts, beste bat/bestea...*

Izen sintagmaren osagai gehiago:

- Aposizioa (*Asierri, nirekin ateratzen zenari, gertatu zaio hori*); komunztadura.
- Posposizio bitartez sorturiko izenlagunak (*erretzaileen aurkako/aldeko iritzia, itzulpengintzari buruzko hitzaldia...*)
- Erlatiboak substantibatuak. Aditz jokatuak: -(e)n + ergatiboa, absolutua, datiboa edo partitiboa (*Autoa gidatu bitartean erretzen dutenek bi puntu galduko dute. Ez dut [inor] ezagutu hori benetan sinisten duenik*). Jokatu gabeak: partizipioa + -tako/-(r)iko (*Proba gaitutakoei agiria emango zaie*) eta partizipioa + gabeko (*hemezortzi urte bete gabekoek debekatuta sarrera*).
- ② Aditz partizipioa izen mugatu: *gezur asmatua; oilo errea*.

Izenordainak: formak, funtzioak, kokagunea, konbinaketa, elisioa. Komunztadura.

- Pertsona izenordain indartuen (*neu/neure, heu/heure...*) eta elkar elkarkariaren erabilera sendotzea.
- Bihurkariak: *neure burua, zeure burua, bere burua...*
- ② Elkarkariak: *bata bestea*.
- ② Zehaztugabeak: *nor edo nor, zer edo zer, zein edo zein, nornahi, zernahi, zeinahi*.
- ② Galdetzaileak: *nortzuk, zertzuk*.

ADITZ SINTAGMA

- Aditzak perpausaren beste elementuekin izan behar duen komunztadura arazoetan sakontzea.

Aditza:

- Aditz sintetikoak: *nor (etzan), nor-nori (egon -dagokizu-, ibili -dabilkizu-, etorri -datorkizu-, joan -doakizu-, jario -dario-), nor-nork (esan, irudi, erabili, iraun, ihardun –erabilienak-), nor-nori-nork (iritzi);* orain aldia eta iragana.
- ② Aditz sintetikoak: *nor, nor-nori, nor-nork, nor-nori-nork;* baldintza: *balebil, baletoz, baneki, bazenerama, lekarke, letorkidake, ...*
- Aditz laguntzailearen erabilera sakontu: *nor, nor-nork, nor-nori-nork* eta inpersonalak; baldintza, ahalera, subjuntiboa eta agintera.
- ② Aditz laguntzailea: *nor-nori;* baldintza, ahalera, subjuntiboa eta agintera.
- Indikatibozko aditz formen denbora eta aspektuak: ikasitakoa sakontu eta zabaldu, zailtasunak izan ditzaketen forma erabilienetan azpimarra jarritz.
- Ekintzen korrelazioa eta denbora - moduen komunztadura. Denboraren trataera informazioa ematean.
- Partzipioak: *-Ø (kotxe lapurtu batean egin zuten ihes), -ta (amaituta ditugu lanak), -(r)ik (asperturik zebiltzan).*
- ② Partzipioaren erabilera aurreratuak: *erdi galdua dabil, bazkaldu berria da, ez da jan zaharra, ez dugu nora joanik, ezetz asmatu!*
- Nominalizazioaren erabilera sakontzea: *-t(z)ea (ez da lan makala gazteentzat pisua aurkitzea), -t(z)eak (zu berriz ikusteak poza ematen dit), -t(z)erik (ez dago zurekin asmatzerik).*
- Forma perifrastikoen erabilera sendotzea: *-t(z)ea gustatu, erabaki, ahaztu, ...; -t(z)en jakin, ikasi, lagundu, ... ; -t(z)era behartu, ausartu, gonbidatu, ... ; -t(z)eko prest egon, asmoa izan, gai izan, ... ; -t(z)eari utzi, ekin, eritzi.*
- ② Nominalizazioaren erabilera aurreratuak: *-t(z)etik (zer aterako duzu gezurra esatetik?), -t(z)earen, -t(z)earekin, -t(z)eaz, -t(z)eraino(ko), -t(z)ear, -t(z)eko zorian.*
- Gerundioaren erabilera denborazko eta moduzko perpausetan: *-t(z)en (irabazten ikusi nuen); -z (eroriz ikasten da oinez); -ta / -(r)ik (hori esanda, alde egin zuen); -ka (deika hasi zen); -la (negarra zeriola sartu zen ezkaratzera).*
- ② Gerundioaren erabilera aurreratuak: *ezean (zer erantzun ezean geratu zen), batean (negar batean aurkitu nuen), -ki (gazteena izaki), -(e)an (jakinean dago)*
- Aspektu burutua adierazteko *izan*-en erabilera (*askotan joan izan naiz*); partzipio nominalizatua (*liburu hori irakurria dut*).
- Aspektu burutugabea *ohi* erabiliz (*igandeetan joan ohi naiz*).
- Etorkizuna adierazteko esamoldeak: *-t(z)ekoa izan (bihar joatekoa naiz), -t(z)eko eduki (ikusteko daukat)*
- ② Etorkizunaren adierazpidea –*kizun* erabiliz (*hori ikuskizun da*).
- Modalitatea adierazteko esamoldeen sendotzea eta sakontzea:
 - o Beharrezana: *ezinbestekoa, nahitaezkoa da ...-t(z)ea.*
 - o Derrigortasuna: *-arazi (ezkontarazi gaituzte), -t(z)era behartu (hori egitera behartu naute) eta eragin (barre eragin dit)*
 - o Ahal izatea: *-tzeko gai izan, -tzea izan, egon, ukan, eduki eta ahalera (galde diezaioket, ikus genezake, etor nintekeen).*
 - o Baimena (*utziko didazu sartzan?, ba al dut sartzetik?, sar liteke?*).
 - o Aukera (*aurkitzen bazaitu, ikusiko duzu; lotsarik bazenu, ez zenioke galdetuko*)
 - o Debekua, aditza jokatuz (*ez iezadazu ezer eska*).
 - o Asmoa: (*-t(z)ekoa izan, -t(z)ekotan egon/izan.*

- ② Desioa edo itxaropena *ahal* partikula erabiliz (*sendatuko ahal da!*, *lortuko ahal duzu!*).
- ② Probabilitatea (*honezkeru iritsiko zen Bartzelonako trenan*).
- ② Susmoa (*berandu oheratuko zen eta hortik dauka buruko mina*).
- Partikula modalak:
 - *Ote, ete* (*ez ote da hondatuko?*)
 - *Omen, ei* (*galdu egin omen da*)
 - ② *bide* (*birusa sartu bide zaio ordenagailuan*)
- Hikako forma erabilienean ulertzea (*ondo zagoz, egongo gaituz, ez zakinat, goazeman...*).
- ② Hikako forma usuenean erabilera.
- Subjuntiboa perpaus bakunean zein mendekoetan.
- Boz aktiboa (*makinek zubi zaharra eraitsi dute*) eta pasiboa (*zubi zaharra makinek eraitsia izan da*).
- Aditz lokuzioak: *logura, haserre, komeni, ...izan; balio, inporta, merezi, ... ukan; amets, barre, negar, ... egin; kontuan, parte, loak, aintzat... hartu; denbora, amore, musu, gogoak..., eman; adarra, larrua, ... jo*.
- ② Aditz laguntzailearen elisioa emendiozko perpausetan (*Bertara iritsi eta segituan ikusi nuen zer gertatzen zen; telebista itzali zuen eta lotara joan*).
- ② Aditzaren elisioa *nahi, ezin, behar, esan*, eta beste zenbait aditz lokuzio eta esamoldeetan (*Gauzak hala datozela-eta, guk zer egingo, ba? Konformatu egin behar*). (*Nahi bai, baina bankuak mailegua ukatu zigun eta ezin erosi pisua*).

ADBERBIOA

- Denboraren (*agudo, harrezkeru, arestian, artean...*), moduaren (*blai, dotore, itsu-itsuan...*) eta lekutasunaren adierazpena (*gertu, hurrean...*).
- Kantitate edo gradu adberbioak beste kategoria gramatikalak eraldatzen (*aise irabazi zion; ozta-ozta gaitu du, oso gertu bizi gara*).
- ② Aditzondoaren gradua: (*orain/oraintsu, hala/halaxe, berandu/berandutxo/berandusko*).
- ② Baieztapen, ezeztapen edo zalantza adberbioak (*menturaz, itxuraz, agian, apika...*).
- Eratorriak: *-oro / -ero* (*egunero*), *-ki* (*arinki*), *-ro* (*astiro*), *-kiro* (*emekiro*), *-ka* (*hoska*) atzikiak.
- Aditzondo elkartuak: *edo-* (*edonola*), *-bait* (*nolabait*), *-nahi* (*noiznahi*), *i-* (*inon*).
- Errepika bidezko indartzea: (*doi-doi, zuzen-zuzenean...*).
- ② *gero* indargarri gisa (*garesti zagoz, gero!*)

LOTURAK

Lokailuak

- Alborakuntza (perpausak eta hitzak josteko): emendiozkoak (*behinik behin, bederen, halaber, orobat...*), hautakariak (*osterantzean, gainerakoan...*), aurkaritzakoak (*haatik, hala eta guztiz ere, aitzitik...*), ondoriozkoak (*hortaz, halatan, horrenbestez...*) eta azalpenezkoak (*zeren, izan ere, hain zuzen ere*).
- Menperakuntza lokailuak (ikus PERPAUS ELKARTUAK).

Preposizioak eta posposizioak

- *zeren, ze, ezen, harik* eta preposizioen erabilera.
- Hedadura zabaleko posposizioen erabilera sendotzea: *noren alde(an), arabera, arte(an), aurka / kontra, aurrean / aitzinean, atzean / ostean, azpian, barruan / barnean, beharrean, bidez / bitartez, esku, bizkar, gainean, inguruan, kontu / kabuz, menpe(an), ondoan / alboan / aldamenean, orde, parean, partez, truk(e); zer edo zeri ezean, faltan; nori esker; zerez gain(era), bestalde(an), haratago; non zehar, gaindi, gora, behera, barrena; nondik kanpo, at, landa*. Aditz lokuzioak: *begira, bila, eske, zain, so, jabe*.
- Zailtasuna duten formen indartzea.

2. DISKURTSOA

Kohesioa:

Gaiari eustea

- ② Korreferentzia baliabide gramatikalak: balio anaforikoa edo kataforikoa duten izenordainak, adberbioak edo esamoldeak: *kontua da, artean, zera...* (*Horixe bera esan diot nik ere. /*

- Orain dela ia bost urte, artean ezkongabe ginela, izan genuen istripua. / Zerak kezkatzen nau: biok batera lanik gabe geratzeak.)
- ② Erakusleen eta izenordainen balio anaforikoa modu neutroan zein intentsiboan (bere garaian, urte hartantxe. Haren besoetatik hartu eta bere altzoan ipini zuen haurra).
 - Mugagabearen lekuan mugatua erabiltzea aipatutako sintagmetan (Bi gizon sartu ziren; denok itzuli ginen gizonengana).
 - Baliabide lexikalak: sinonimoak (gizon zaharra, agurea), hiper / hiponimoak (zulagailu / tresna), definizio barneko hitz bat erabiliz (agintari, presidente...), nominalizazioa (zortzietan aterako dira, zortzietan izango da irteera...).
 - ② Proforma lexikalak: auzia, kontua, gaia (Nirekin hitz egin behar omen zuen lehenbailehen baina gero ahaztu egin zitzaion kontua). Erreferentzi esamoldeak: aipatu, berau... (Arriagaren urteurrena dela-eta, beronen musika izango da gaur entzungai aipatu musikariaren izena duen antzokian)
 - Nukleoaren elipsia erreferentzia zuzeneko testuinguruetan: (Hamar pisu begiratu ditugu gutxienez asteburuan, baina alferrik: batzuk garestiegiak zirela, eta merkeagoak... zulo zikin hutsak. / Hi, txo, noiz eman behar didak diskoa atzera? Bai, Brubeckena!)
 - ② Bigarren osagaiaren elipsia esaldi koordinatuetan: (Izaskunek eta erregalatu zidaten; Bulegoko arduradunarekin edo hitz egin beharko duzu).

Aditz koherentzia

- Diskurtsoaren aditz koherentzia (denboraren haria, gertakarien pilaketa, atzera egitea); aditz denboren balio aldaketak (orain aldia iraganaren lekuan informazioa berritzeko; gero aldia eta jakinaren gaineko gero aldia) (Honez gero jakingo duzu; Barkatu, honez gero jakingo zenuelakoan esan dut;); kortesiazko iragana orain aldiaren lekuan (Egunon, praka batzuk nahi nituen).
- Informazioa igorri edota aipatzeko baliabideak: zehar-estiloaren komunztadura denbora aldatzen denean (Atzo joango zela esan zuen).
- ② Informazioa igortzeko edota aipamenak egiteko baliabideetan sakontzea: sarrera aditza ezabatutako aipuak (Jonekin hitz egin dut: ez dakiela etortzerik izango duen, ezin duela, lanpetua dabilela... betikoa).
- ② Denbora-moduen korrelazioa aipamenak egitean, igorlearen asmoen arabera (informazioaren egiazkotasunari so eginez) (Bere kotxean zoazela dio / bere kotxean joan zaitezela dio; gasolioa garestitu egingo zela zioen / gasolioa garestituko dela zioen / gasolioa neguan beti garestitu ohi dela zioen).
- ② Mezu errepikakorrak (Bateko joan behar nuela, besteko nire zain zeudela denak..., ezin ezetzik esan!).

Lokailuak:

- ② Gehitzekoak (halaber, areago...), aurkaritzakoak (hala ere, ordea...), kausazkoak (zeren, alabaina, bada, izan ere), kontsekutiboak (hortaz, honenbestez...)

Antolakuntza

- Antolatzaileak:
 - Hasiera: agurrak, (Jaun [txit] agurgarria, jaunak, jaun-andreok, lagunok...), aurkezpenak, gairako sarrerak (hasteko esan dezadan, lehenik eta behin, aztertuko dugun gaia, idazlan (mintzaldi) honen helburua, bazen behin, ezer baino lehen...) gaia aldatzeko sarrerak (gaia aldatuz, harira ez badator ere...)
 - Egituraketa: irekiera (hasteko; lehenik eta behin; ezer baino lehen), jarraipena (era berean; ② modu bertsuan; bestalde...) eta itxiera (bukatzeko, laburbilduz...); ikuspegia (tamalez, jakina denez...), digresioa (bestela ere, ② bidenabar aipa dezadan, ② gaia pixka batez desbideratuz...).
 - Birformulaketa: azaldu (hau da, ② hots, hortaz, bestela esanda...), zuzendu (hobeto esanda, zehatz esateko, zehazkiago...), alboratu (dena dela, ② nolana ere, ② hori horrela izanik ere...), gogora ekarri (ezaguna den bezala...), laburbildu eta konklusioak atera (beraz, guztira, ② hartara, ② laburbilduz...).
- Puntuazioa eta paragrafoa. Puntuazio markak erabili diskurtsoaren markatzaile gisa. Paragrafoaren eta diskurtsoaren gaien arteko harremana.
- Sailkapenak, azpimarrak eta erreferentziak egiteko marka grafikoak.

- Intonazioa eta etenak.

Elkarrizketa (jarrera eta erregistro ezberdinetan)

- Izenordearen erabilera txanda aldaketan markatzaile, subjektibotasunaren adierazle (–*Zer iruditzen? –Ba, nik uste ondo dagoela; Ondo dago, nik uste; Zuk nahi duzuna egin, baina ni ez noa*).
- Elkarrizketa markatzaileak (norbaitengana zuzendu, agurtu, hizketan hasi, elkar lagundu...)
- Mezuen aurreko erreakzioak (*Holakorik!; Ez da egia izango!; Gezurra dirudi*), indartze esamoldeak (*Ez dago esan beharrik; Dudarik gabe*), mintzakidea inplikatzekoak (*Ez da hala?; Ez duzu uste?; Ondo dakizunez,...*).
- ② Baieztatu (*Bai, bada!; Ez dago zalantzarik; Dudarik ez; Bueno, bai baina...; Ados nago oro har*), ezadostasuna agertu (*Bai, baina...; Ez, ez, ez; Ez horixe!; Ez nago ados; Pentsatu ere ez!...*), iritziak argitu, hurbildu (*Ez da hori; Gauzak ez dira zuk diozun bezala; Kontua da, ordea,...*; *Tira, nik uste, ordea...*), norberaren inplikazioa agertu (*Hara!; Ez da egia izango!; Egitan?; Halakorik ere!*), hitza hartu (*Zera...; zertxobait esan nahi nuen nik; badut nik zer esanik hortaz; Nire aldetik...*), azalpena hasi (*Bueno, bada; Ba, horixe...; Ba, begira...*), errepikatu (*Berriro dinot; Lehen esan dudana,...*) eta aipuak igorri (*... eta dio "..."; Mesedez etortzeko esan diot nik eta berak ezetz, ez duela gogorik*), bukaera iragarri (*... eta horixe da dena; Bada, ondo esanak gogan hartu...; ... eta besterik ez,...*), agurtu (*Bueno, ba; Utzi behar zaitut orain; Beste bat arte; Ondo izan beraz; Bueno, banoa orain*).
- Ohiko egoera eta elkarrizketetarako baliabideak ("bikote biziak"): adibidez, telefonozko galde-erantzunak (*-Urlia, mesedez? –Itxaron pixka batean / Berehala jarriko da / Une honetan ez dago / Orain ezin da jarri / Noren partez?*), eskaintza-onarpen/errefusak (*... nahi zenuke? / Nahi al duzu... – Bai, ba; Nola ez!; Zergatik ez!; Estimaten dizut, baina...; Pozik gainera!; Benetan eskertzen dizut; Tamala da baina...; Ezinezkoa dut*), zerbaitetan tematu (*Ea ba!; Baietz, mesedez*), eskatu-etsi-eman (*–Mesede bat egingo didazu?; –Lagunduko didazu, mesedez? / –Bai, noski, zer behar duzu?; –Pasaidazu ogia. / –Tori; Hor duzu*).

Deixia

- Egoera ezberdinetako (elkarrizketa, telefono, txat, gutun eta abar) hitzaldietako eta kontakizunetako seinalatze moduak: izenordainen, erakusleen eta denbora-leku adierazleen erabilera (*ni, zu ↔ bera, orain, une honetan, gaur, atzo, bihar... ↔ orduan, une horretan, egun berean, aurreko egunean, hurrengo egunean ..., hemen, hori, etorri, ekarri ↔ hara, hori, joan, eraman*).
- Deiktikoen markatzaileen eraldaketa leku-denborazko aldagaien kariatara: izenordainak, erakusleak eta leku-denborazko esamoldeak. Ikuspuntuaren eta erregistroaren arabera (*Zatoz hona agudo! > Hona etortzeko esan zidan / Hara joateko esan zidan / Zuregana joateko esan zenidan*).

Kortesia:

- Plural hurbilaren erabilera (*Euskaldunon esku dago hizkuntzaren geroa; Emakumeok batzuetan ulertzen zailak zarete benetan*).
- Igorlearen presentzia leundu honako esapideak erabiliz: inpersonala (*Komuneko papera bukatu da, informazio guztia ezabatu zait*), 2. pertsona (*bizitza guztian zaintzen dituzu eta...*), zehaztugabea (*batek daki!*), gu subjektua (*gurean ez da horrela egiten*) eta biok esamoldea (*Jon eta biok hasiko gara*). Hartzailearen presentzia leuntzeko baliabideak: inpersonala (*berehala konpondu beharko litzateke*) edo plurala (*denak berdina zarete*).
- Denbora eta aspektu ñabardurak: burutua (*askotan joan izan gara berarekin, atxilotuak izan dira*), burutugabea (*honela egin ohi dugu, honela egin daroagu, zera nahi nuen*), etorkizuna (*etortzekoa da, etorri behar du*), baldintza (*egingo zenidake mesede bat?*).
- ② Ohiko tratamenduak: hikako formulen erabilera (*aizu / aizan / aizak, to / no, ...*).
- ② Harremanetarako esamoldeak (aginduak, eskariak, zuzenketak...): *Axola zaizu?, arren, otoi, eskertuko nizuke, barka...*
- Elkartasuna eta lankidetzaren adierazteko esamoldeak: *bai noski!, nola ez ba?, galdetzea ere!...*
- ② Intonazioaren garrantzia hizkuntza ekintza hauek leuntzeko edo indartzeko.

Inferentzia

- Zenbait egoera komunikatibotan mezu inplizitua duten esapideak (*Zeinek irabazi du? - Esatea ere!*).

- Mezu anbiguo edo ezkutuak. (“Egosi egingo gara”, leihoa irekitzeko eskatuz emandako mezua).
- Aldaera morfologikoetan ezkuta daitezkeen ñabardurak: (*Ez dut esan zuk lapurtu duzula / Ez dut esan zuk lapurtu duzunik*).
- Mezu inplizitua daramaten erantzun laburrak (-Zigarrotxo bat nahi? -Utikan!)
- Ironiazko mezuak (*Umetxo batek ere asmatuko luke!*).
- ② Ahots tonuan inplizituak diren jarrerak: ironia, trufa... (*Informatikan aditua dela? Bada, erruz dauzkagu hemen adituak*).
- ② Joera inplizitua duten galde-perpauak (*Ez zaizu iruditu apur bat edanda zegoela?*)
- ② Metaforak eta kultur erreferentzia zehatzak dituzten esamoldeak (*Usoak joan...; punttua jarri; Fernando Amezketarraren ateraldiak; lamiaren urrea; Axularren sagarroia*).

Tematizazioa, fokalizazioa

- Perpauseko osagaien orden markatuaz eta ez markatuaz ohartzea.: tema-rema (mintzagaia-galdegai) (*Julenek bidaliko digu [Mertxek ezin du-eta]; Etzi edo bidaliko digu Julenek [oraindik ez baitago prest]; Bidali egingo digu Julenek [ekarri beharrean]*).
- Mintzagaiaren elipsia (*Zortzietako trenean datorrela [larunbatean] [dio zure amak]*).
- Mintzagaiaren eta galdegaiaren markatzea baliabide gramatikalak direla medio: forma indartuak (*orduantxe; hantxe bertan; harexek berak*), ordena (*Gogoa daukat ikaragarria!*), egiturak (*Ez du gogoratu ere egiten*), lexikoa (*Jan?, irentsi egin duzu!*), intonazioa (*DIRUA behar duzula? Neronek ere bai!* (Ikus Tarteko Maila 2)).
- ② Informazio ezaguna (mintzagaia) zein berria (galdegai) indartzea baliabide gramatikalak erabilita: ordena (*Gogoa daukat ikaragarria!*), egiturak (*Nahi izanda ere ez zuen okerrago egingo*), lexikoa (*Jan?, irentsi egin duzu!*).
- Elementu bat indartzeko eta fokalizatzeko baliabideak: harridura (*A ze suertea daukaten batzuek!; Hi haiz hi!*), gaia zehazteko esamoldeak (*Egia esan, ...; Bada, zer nahi duzu esatea, ...*), zerrendatzea (*Dei egin dizut eta komunikatzen zegoen, eta piska baten itxaron dut eta berriz deitu...*), errepika (*Neke-neke eginda heldu zen; Zain eta zain izan naiz hor zutik*), lexiko berrindartua (*izugarri garestia; sekulako ederra;*), gradua (*denetan onena; inoizko pozez*), aurrizkiak eta atzizkiak (**superrezaguna, zurrutada*), luzaketa fonikoa (*Eneee! Edeeeerra da, gero!*), silaba-kolpeak (*Nola esan behar dizut? EZ-DE-LA-NI-RE-E-RRU-A!*).
- ② Fokalizatorako baliabide diskurtsiboak (*Ezta belauniko jarrita eskatuta ere*) eta sintaktikoak (*Nori suertatuko eta errugabe bakarrari gertatu behar; Erori egin zait, ez dut nahita bota*).
- ② Mintzagaiaren berreskurapena: (*Iratzeri zor zioten diruaren kontu hura, zertan geratu zen azkenean?*).
- ② Osagaiak indartzeko eta fokalizatzeko baliabideak: gaia zehazteko esamoldeak (*Egia esan...*), ere lokailua (*Nora doan ere ez daki*), a zer nolako esamoldea (*A zer nolako jenioa duzun!*), hain edo hainbeste daramaten kontsekutiboak (*Hain da langilea, ze ez daki ezer egin gabe egoten*), zerrendatzeak (*Denetik aurki dezakezu: hondartza, mendia, gau-giroa...*).

3. LEXIKOA ETA SEMANTIKA

Hiztegia

- Aurreko kapituluetan zehaztu diren egoera formal eta informaletako funtzioak burutzeko behar diren esamoldeak.
- Landutako egoera eta gaietarako hiztegi zabala: aldaera formal eta informalak, estandarrak eta familia artekoak edo profesionalak.
- ② Lokalismoak (*marejadia, estomaka, sarratu, bilana...*)
- ② Euskalkietako aldaera lexikalak (*sarratu, berba, eroan, jin...*).
- Sintagma eta hitz sekuentzia lexikalizatuak, bikote lexiko erabiliak (*mahaia jaso, hutsaren hurrengo, behar gorri...*).
- Ohiko esamolde eta esaerak (*gureak egin; bereak eta bost, txolindu, hitz eta pitz...*).
- Konparazio irudi hedatuak: *gerezia bezain gorria; taloa baino goxoago; kea baino alferrago...*
- Esaera zaharrak (*Zozoak beleari ipurbeltz; Txapela buruan, ibili munduan...*).

Hitzen sorrera

- Erorriak:
 - Aurrizkiak: *des-* (*desegin*), *aurre-* (*aurreikusi*, *aurreiritzi*).
 - Atzizkiak: *-(k)ada* (*bultzada*); *-(k)ari* (*opari*); *-(k)era* (*ibilera*), *-(t)eria* (*tresneria*); ② *-bako* (*ganorabako*), *-bera* (*hozpera*), *-era* (*luzera*), *-gintza* (*etxegintza*), *-go* (*jabego*), *-keta* (*azterketa*), *-ki* (*beroki*, *txerriki*), *-kin* (*etorkin*), ② *-kiro* (*emekiro*, *-kizun* (*ospakizun*), *-koi* (*etxekoi*), *-kunde* (*erakunde*), *-kuntza* (*aldakuntza*), *-men/pen* (*oroimen*, *askapen*), *-te* (*eurite*), *-ti/di* (*pinadi*), ② *-tiar* (*goiztiar*), *-tu* (*gaztetu*), *-tun* (*jakitun*), *-tza* (*nekazaritza*, *jendetza*), *-aldi*, *-aro*, *-gailu*, *-gai*, *-kor*, *-gaitz*...
- Elkartuak: *izena+izena* (*maisuu-maistrak*, *oilo salda*...), *aditz erroa+izena* (*logela*, *idazlan*...), *aditz erroa+adjektiboa* (*ezkonberri*, *ulerterraz*...) *izena+adjektiboa* (*katagorri*, *gibelurdin*...) (*erorria*)+*izena*+(*erorria*) (*hurbiltze saio*, *odol emaile*...), *partizipioa+partizipioa* (*joan-etorri*, *harreman*...), *adjektiboa+adjektiboa* (*luze-labur*, *hotz-bero*...), *izena+aditza* (*denborapasa*, *eraberritu*...), *adjektiboa+aditza* (*ederretsi*...) galdegilea erabilia eraturakoak (*norgehiagoka*, *nonzerberri*...)
- ② Txikigarriak eta handigarriak (*mutikote*, *andereño*, *astotzar*, *astakilo*, *kutxatila*, *oilasko*).
- ② Maileguak:
 - Aurrizki kultuak: *telegidatzaile*, *mikroegitura*, *minigona*...
 - Atzizkiak: *burutazio*, *amorante*, *aurrearamendu*...
 - Hitzak: *posible*, *informatika*...
 - Hitz taldeak: *doministiku*, *mekaguenka*...
- ② Hitz familiak. Katgoria gramatikal batean baino gehiagotan sailka daitezkeenak (*iritzi*, *azkar*...).
- Nominalizazioa.
- Onomatopeiak (*plista-plasta*, *kili-kolo*, *zurumurruru*, *dinbi-danba*...).
- Sigla erabilienak (*EAE*, *AEK*, *EH*, *AEB*, ...).

Esanahia

- Landutako gaietako dagozkien eremuak (*lur orotako ibilgailua*, *esantza*, *auto-pilaketa*, *galga*, *argiztapena*...).
- Proformak (esanahi irekiko hitzak: *jo*, *kontu*, *zera*...) eta testuinguruan esanahi bertsukoekin trukatu (*esan > adierazi*, *ezagutzera eman*, *azaldu*, *kontatu*, *aipatu*, *iruzkin egin*...)
- ② Sinonimoak edo esanahi hurbilekoak. Eremu semantikoak.
- ② Hiperónimoak / hipónimoak.
- ② Antonimorik erabilienak.
- ② Polisemia eta hitzen esanahi bikoitza. Testuingurua argigarri.
- ② Formalki antzekoak diren hitzak, nahaste eragileak (*iritzi-iritsi*; *hur-ahur*; *ur-hur*).
- Hitzen osagaiak identifikatu eta definizioak ematen jakin.
- Lagun faltsuak eta hitzen arteko interferentziak (beste hizkuntzetako hitzekin bereziki).

4. FONOLOGIA ETA ORTOGRAFIA

Baliabide fonikoak

- Euskaltzaindiaren aholkuak: *EBAZ* (euskara batuaren ahoskera zaindua).
- Bokalak eta kontsonanteak ezagutu eta ahoskatu.
- /g/-ren ahoskatzea *i*, *e* bokalen aurrean (*filologia*, *geografia*...).
- /j/-ren ahoskatzea (*jo*, *jauna*...)
- Zailtasun handieneko fonemak landu (*-tz-tx-ts*; *-s-x-z*; leherkari trabatuak).
- /r/ - /rr/ bereizi hitz bukaeran (*ur > ura*; *hur > hurra*)
- ② Fonemen ahoskatzean egon daitezkeen aldaerak ezagutu eta bereizi (*kalea*/[*kalia*], *astoa*/[*astua*], *behar*/[*biar*], *bihar*/[*bijer*]...).
- Familia eta lagun giroko hizkeran izaten den ahoskatze erlajazioaz jabetu (*adiskide*>[*aixkire*]; *zer moduz*>[*sémuús*]...).
- Hizkuntzaren prozesu fonologikoetan arreta jarri: palatalizazioa (/mutilla/, /olloa/...), /n, l, r/ + /s, z, x/ → /ts, tz, tx/ (/hantzegoen/), /b/ eta /p/ (*bake* / *pake*), /g/ eta /k/ (*gitarra* / *kitarra*).
- Fonemen eta letra /zeinuen arteko egokitzapena.
- Diptongoak (*garai*, *aurten*, *neu*...) eta hiatusak (*pazientzia*, *nazioa*...).

- Silabaren egitura eta zatiketa irizpide silabikoei jarraiki, ez etimologikoei (*gi-zo-nik* / **gi-zon-ik*).
- Silaba tonikoen antzematea (*[andérenoà]*, *[darámatzàt]*...).
- ② Kate fonikoa; ahozko zatiketa silabikoa idatzizkoaren aurrean (*[e-tza-pa-hoi-e-san]* > *ez-e-zak-ba-ho-ri-e-san*).
- Intonazio modu hedatuenak.
- Komunikazio funtzioei egokitutako intonazioa.
- Unitate melodikoen eta puntuazioaren arteko egokitzapena.
- Herralde ezberdinetako ezaugarri melodikoen antzematea.
- Talde fonikoak: azentuak eta intonazioa.
- Tonuak: motak, aldaerak.
- Erritmoa: talde fonikoak eta etenak.

Ortografia

- Fonemak eta hizkiak.
- Zailtasun handieneko fonemen transkribapena.
- Maileguen egokitzea: /x/-dunak (*xenofobia*, *taxi*, *testu*, *esportazio*...) /g/j/y/-dunak (*birjina*, *jogurt*...), hasierako /r/- edo /s/-dunak (*arratoi*, *radar*, *izpiritu*, *stop*...).
- ② Maileguen egokitzea: /n,l,r/ + /s,z,x/ (*unibertsitate*, *kontsonante*...)
- ② /o,u/-z bukatutako maileguen egokitzea (*titulu*, *minutu*, *segundo*...)
- /h/-ren idazkera: hitz bakunak (*hau*, *harri*; *al ≠ ahal*...) eta elkartuak (*arbel*, *harrigarri*...).
- -a itsatsia eta bere jokaera hitz elkartuetan (*anaia* > *anaia bat*, *anai-arrebak*, ...).
- Hizki larrien erabilera izenburuetan (*Atxagaren Obabakoak*), errealitate bereziak (*Itxita aurkitu genuen elizako atea*; *ezikusiarena egin zuen Elizak diktaduraren hilketaren ugarien aurrean*).
- Zeinu bereziak: apostrofoa (*agur t'erdì*), marratxoa (*senar-emazte*).
- ② Hitz elkartuen idazkera (*jarleku*, *udal zerga*, *poliki-poliki*...)
- ② Ortografiako zalantzak (*ba-*, *bait-*, *-arazi*, *-(e)z gero*...)
- ② Atzerriko izenek idaztean sortu ohi dituzten zalantzak, irizpide fonetikoa (*James Joycen idazlanak*) edo ortografikoa (*James Joyceren idazlanak*) erabiltzean.
- Letra motak (normala, etzana, beztua).
- Zenbakien (*bi kilo eta erdi*; %5a), ordinalen (8.a; 5.ean...) eta daten (2007eko; XX. mende...) idazkera.
- Lerro bukaerako silaba banaketa irizpide silabikoari jarraituz.
- Laburdurak (*kg*, *etab.*, *adib.*, *zk.*, ...) eta siglak (*EHUko irakaslegoa*, *NBen bilera*, *AEBetako atletak*, *HIESaren zabalkundea*...).
- Puntuazioa.

Nola ikasten da?

Norberak ikasteko estrategiak

- o Baliabide pertsonalak bilatzea eta erabiltzea (testu-liburua, hiztegi pertsonala, oharrak, eta abar), ikastetxekoak (liburutegia, baliabide-gela, eta abar) eta ikastetxekoak ez direnak (Internet).
- o Errazago ikasteko, estrategia orekatzaileez baliatzea (parafraseatzea, mimikaz baliatzea, eta abar), estrategia afektiboak (akatsak eginez gero, norbere buruarengan konfiantza izatea) eta estrategia sozialak (lagunekin lan egitea, bertako hiztunekin trukaketa egitea, eta abar).
- o Ikasteko eta lanerako teknikak garatzeko, memorizatzekeo estrategiak erabiltzea (harreman mentalak, mapa semantikoak eta abar sortzea), kognitiboak (aztertzea, ondorioak ateratzea, arrazoitzea, eta abar) eta metakognitiboak (helburuak ezartzea, ikasitako gauza berriak aurrekoekin lotzea, eta abar).
- o Komunikazio-egoeretan parte hartzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren bidez (mugikorak, txata, mezu elektronikoak, eta abar).
- o Sarrien gertatzen diren akatsak antzematea eta arrazoiak aztertzea.
- o Akatsak ikasketa-prozesuaren nahitaezko osagaia direla onartzea.

EBALUAZIOA

Azken ebaluazioa **helburu espezifikoetan** aipatutako gaitasun-mailei buruzkoa da: gaitasun pragmatikoa, soziolinguistikoa, linguistikoa eta estrategikoa. Ahozko eta idatzizko ulermen nahiz adierazpen komunikazio-jardueretan islatzen da gaitasun-maila.

Goi Maila 1

Ahozko eta idatzizko elkarreragina

- Gai eta egoera askoren inguruan eraginkortasunez elkarreragitea; jarioaz, zehaztasunez eta naturaltasunez, solaskideari naturala egin dakion eta jarrera berezia ez diezaion eskatu.
- Solasaldietan, eztabaidetan, transakzioetan eta elkarrizketetan norbere ikuspuntuaren alde egitea, behar bezala azalduz eta argudiatuz, eta era berean gertaeren eta esperientzien garrantzia pertsonala azpimarratuz.
- Beste berba-lagun batzuekin posta-trukea egitea; berriak eta iritziak kontatuz eta, egoeraren arabera, sentimenduak, informazioa eta emozioak adieraziz.

Ahozko ulermena

- Ideia eta xehetasun garrantzitsuenak ulertzea, helburu komunikatiboak zeintzuk diren jakitea, informazio egokia aukeratzea (solasaldietatik, ohar zehatzetatik, albisteetatik, narrazioetatik, gai baten aurkezpenetik, eztabaidetatik nahiz elkarrizketetatik) Gaiak, betiere, orokorrak eta euren espezialitatekoak izango dira; erregistroak, aldiz, estandarrak eta formalak zein informalak. Entzungaiak berriz entzuteko aukera eta zalantzak argitzeko aukera izango dute.
- Gai orokorreki buruzko grabazioetako informazioaren edukia (argi eta modu estandarrean ahoskatuta) ulertzea. Hizkuntza estandarra darabilten telebista-programak izango dira: interes pertsonalekoak, elkarrizketak, hitzaldiak, konferentziak, albistegiak eta filmak.

Idatzizko ulermena

- Hainbat testu mota nahikoa autonomiaz irakurtzea, hainbat gauza antzemanek: komunikazio-helburuak, oinarriko informazioa, puntu garrantzitsuenak, puntu osagarriak eta argumentuaren haria.
- Jatorri desberdineko informazioa, ideiak eta iritziak erraz aukeratzea.

Mintzamena

- Kohesiodun testuak sortzea, testu argiak eta komunikazio-helbururako egokiak direnak. Informatzeko; kontatzeko; esperientziak, sentimenduak eta gertaerak deskribatzeko; gai bat azaltzeko; ideiak defendatzeko eta zabalago azaltzeko, gauza osagarrien eta adibide argigarrien bitartez.
- Segurtasunez, zehaztasunez eta nahiko zuzen mintzatzea; eritmo erregularrez eta ondo ahoskatuz.
- Baliabide linguistiko ugari erabiltzea; testu zehatzak, argiak eta kohesiodunak sortzeko. Funtzioak eta gaiak ugari izango dira. Hiztunak jarioarekin hitz egin beharko du, zalantzak ez zaizkio igarri behar eta gauzak ez ditu sarri errepikatu behar, nahiz eta egitura konplexuak erabiltzerakoan akats batzuk izan (akats horiek ez dute komunikazioa oztopatuko). Ohikoak ez diren egoeretan akats "iraunkorrak" egin ditzake.

Ebaluaziorako honako irizpide hauek erabiliko dira:

Ahozko adierazpena eta elkarreragina

1. *Komunikazio-eraginkortasuna: etorria eta naturaltasuna du hitz egiterakoan, ia etenik egin gabe mintzatzen da hitzak eta egiturak bilatzeko. Lanaren arabera komunikatzen da eta funtzioak betetzen ditu.*

Gai askori buruz jarioarekin hitz egiten du. Edukia argia da eta funtzioak betetzen ditu. Egoera –formala nahiz informala- ezagutzen du eta hainbat gauzataraz egokitzen da:

tratamendura, kortesiara, jarreretara, keinuetara, informazio motara eta informazio neurriara, hartzailera, helburura eta tokira.

2. Diskurtsorako gaitasuna: partehartzea eta lankidetzak; ondo antolatutako, kohesionatutako eta garatutako ideiak eta argumentuak.

- Elkarreragina: partehartzea eta lankidetzak.

Ohiko eta ezohiko eztabaidetan parte hartzen du eta solaskidea inplikatu du. Bere iritzia eskaini, azaldu eta defendatu ditu, proposamen alternatiboak ebaluatu egiten ditu, hipotesiak botatu ditu eta erantzuna ematen die hipotesiei. Bere espezialitatearekin zerikusia duten gaietarako eztabaidak ez ezik, berba-lagunak azpimarratzen dituen ideiak ere ulertzen ditu. Adierazle linguistiko eta estrategia aukera zabala eta anitza erabiltzen du. Xede-kulturako ohituren arabera jokatu du.

- Aurkezpena: ideia-, antolaketa- eta garapen-koherentzia.

Ideiak koherentziaz, argi eta zehatz azaltzen ditu. Gaia ardatz hartzen du eta planteamenduetan amaiera ematen die. Zenbait gertaeren garrantzia pertsonala azpimarratzen du. Lanaren arabera ondo antolatutako egitura du. Komunikazio-helburua betetzeko, puntu garrantzitsuetarako buruzko informazio egokia ematen du.

3. Hizkuntzaren erabilera: adierazle linguistikoak, kohesioa eta erritmoa.

Lanera eta mailara egokitutako adierazle linguistikoak erabiltzen ditu. Ahozko aberastasuna eta sormena erakusten du. Horri esker, errepikapenak eta zalantzak ekiditen ditu. Egoki ibiltzen da itzulgingurura. Lokailu eta baliabide asko erabiliz lotzen eta kohesionatzen ditu osagaiak. Denbora koherentziaz darabil testu osoan zehar. Naturaltasunez moldatzen da. Erritmo erregularra du. Eten gutxi egiten ditu eta azalpenak gutxitan errepikatzen ditu.

4. Zuzentasun formala: lexikoa, sintaxia, morfologia, ortografia.

Ohiko funtzioak betetzeko lexiko zabala menperatu du. Ohikoak ez diren egoeretan ideia eta egitura konplexuak erabiltzera ausartzen da, nahiz eta ama-hizkuntzaren eta beste hizkuntzen interferentziak agertu. Lexiko alorreko akatsak noizean behin baino ez dira azaltzen eta ez dute komunikazioa desitxuratu. Ondo ahoskatzen du, nahiz eta ama-hizkuntzaren doinua antzeman. Doinua hizkuntzaren eskemetara egokitzen da.

Idazmena

- Hainbat gai buruzko testu argiak, koherenteak eta kohesiodunak idaztea, lexiko zehatza eta gramatika zuzena erabiliz.
- Hainbat jatorriko informazioa sintetizatzea eta ebaluatzea; gertaerak kontatzea; testu mota eta komunikazio-egoera deskribatzea, arrazoitzea, konparatzea eta ondorioak ateratzea.
- Diskurtsoa malgutasunez eta egoki kohesionatzea, diskurtso-lokailuak eta markagailuak egoki erabiliz.

Ebaluazioa honako irizpide hauen arabera egiten da:

Idatzizko adierazpena eta elkarreragina

1. Komunikazio-eraginkortasuna: Etorria eta naturaltasuna du. Lanaren arabera komunikatzen da eta funtzioak betetzen ditu. Badaki zein den errealitate soziolinguistikoa eta hartara egokitzen da.

Hainbat gai buruz jarioz idazten du, betiere bere intereseko gaietarako. Edukia argia da eta funtzioak betetzen ditu. Egoera –formala nahiz informala- ezagutzen du eta hainbat gauzatarara egokitzen da: tratamendura, kortesiara, informazio motara eta informazioaren neurriara, hartzailera eta helburura.

2. Diskurtsorako gaitasuna: ideia-, antolaketa- eta garapen-koherentzia

Ideiak koherenteak, argiak eta zehatzak dira. Gaia ardatz hartzen du eta planteamenduetan amaiera ematen die. Ez ditu gauzak errepikatzen. Zenbait gertaeren garrantzia pertsonala azpimarratzen du. Lanaren arabera ondo antolatutako egitura du. Komunikazio-helburua betetzeko, puntu garrantzitsuetarako buruzko informazio egokia ematen du.

3. Hizkuntzaren erabilera: adierazle linguistikoak, kohesioa eta erritmoa.

Lanera eta mailara egokitutako adierazle linguistikoak erabiltzen ditu. Ahozko aberastasuna dela-eta, ez ditu gauzak errepikatzen. Osagaiak lotzeko eta kohesionatzeko, lokailu eta baliabide asko erabiltzen ditu. Puntuazioa egokia da. Osagaiak zehaztasunez berreskuratzen ditu eta denbora koherentziaz darabil testu osoan zehar.

4. Zuzentasun formal: lexikoa, sintaxia, morfologia, ortografia.

Etorriz, zehaztasunez eta naturaltasunez adierazteko gaitasun linguistikoak ditu. Funtzioak betetzeko lexiko zabala menperatzen du. Egitura konplexuak erabiltzen ditu eta ez du akats larriak egiten. Akats lexikoak noizean behin baino ez ditu egiten eta ez dute komunikazioa desitxuratzen. Ortografia-akats oso gutxi egiten ditu.

Goi Maila

Ahozko eta idatzizko elkarreragina

- Hainbat motatako solasaldietan, transakzioetan eta eztabaidetan naturaltasunez eta eraginkortasunez elkarreragitea, noizean behin hitz-jarioa erakutsiz. Egoerara egokitutako erregistroa eta kortesia erakutsiko du.
- Solasaldietan, transakzioetan, elkarriketetan eta eztabaidetan parte hartzea; argi hitz eginez eta ideiak, iritziak, akordioak, argudioak, aholkuak eta informazio konplexua egoki trukatzuz.
- Posta-trukea egitea; berriak eta iritziak egoki kontatuz; gertaeren eta esperientzien garrantzia pertsonala azpimarratuz; eta, egoeraren arabera, sentimenduak eta emozioak adieraziz.

Ahozko ulermena

- Testu luzeak, ondo antolatutakoak eta konplexuak (argumentu eta hizkuntza aldetik) ulertzea. Gaiak zehatzak zein abstraktuak izan daitezke; teknikoak ere bai, baldin eta bere espezializazioak badira. Testuak hizkuntza estandarrean sortutakoak izango dira eta abiadura arrunta izango dute.
- Aurreko testuen komunikazio-helburuak, puntu garrantzitsuenak eta xehetasun argigarriak zeintzuk diren jakitea.
- Grabatutako materiala edo hedabideren batek hizkuntza estandarrean emandako materiala ulertzea (dokumentalak, albisteak, eta abar).

Idatzizko ulermena

- Gutunak, jarraibideak, iritzi-artikuluak eta literatura garaikideko testuak irakurtzea, autonomiaz eta abiadura nahiz estiloa helburuetara egokituz. Halaber, jakin egin behar du zeintzuk diren komunikazio-helburuak, oinarriko informazioa, puntu garrantzitsuak eta osagarriak, argumentuaren ildoak, gertaerak, iritziak. Hori guztia erreferentzia-iturri selektiboak erabiliz.

Mintzamena

- Gai orokorreki eta bere espezialitateko gai buruzko testuak sortzea, testu antolatuak eta koherentziadunak; kontatzeko, deskribatzeko, informatzeko, argi arazoitzeko, ideiak zabalago azalduz eta defendatuz, eta gauza garrantzitsuak azpimarratuz.
- Diskurtso malgua, zehatza eta zuzena sortzea, ulertzeko arazorik ematen ez duen diskurtsoa. Argi eta naturaltasunez ahoskatuko du. Hitz-jarioa aipagarria izango da, tarte luze eta konplexuetan ere bai.
- Norabide-, estilo- eta enfasi-aldaketetara malgutasunez egokitzea. Hala ere, oraindik zalantzak izan ditzake eta itzulinguruka aritu daiteke.
- Baliabide linguistikoak ia akatsik gabe menperatzea. Dena den, egitura konplexuetan egin dezake akatsen bat noizean behin, komunikazioa oztopatzen ez duen akatsen bat. Gai izango da bere buruari "akats iraunkor" batzuk zuzentzeko .

Ebaluazioa honako irizpide hauen arabera egiten da:

Ahozko adierazpena eta elkarreragina

1. Komunikazio-eraginkortasuna: *etorria eta naturaltasuna du hitz egiterakoan. Lanaren arabera komunikatzen da eta funtzioak betetzen ditu. Errealitate soziolinguistikoa ezagutzen du eta hartara egokitzen da.*

Erraztasunez adierazteko gauza da hainbat gairi buruz. Edukia argia da eta funtzioak zehatz betetzen ditu. Gai orokor gehienei buruzko elkarrizketa luzeetan parte hartzen du, nahiz eta ingurua zaratatsua izan. Gertaerei nolabaiteko emozioa ematen die.

2. Diskurtzorako gaitasuna: *partehartzea eta lankidetzaz; ondo antolatutako, kohesionatutako eta garatutako ideiak eta argumentuak.*

- *Elkarreragina: partehartzea eta lankidetzaz*

Eguneroko egoeretan bertako hiztunen artean izaten diren eztabaida informalean erritmoa jarraitu dezake eta iruzkinak egiteko gai da. Bere iritzia zehatz adierazten ditu eta iritziei eutsi egiten die. Konbentzitzeko moduko argumentu-ildo konplexuak aurkezten ditu. Azalpenak, argudioak eta iruzkinak ematen ditu. Egoeretara egokitutako formaltasun maila hartzen du. Hizkuntza estandarrez esandakoa ulertzen du, nahiz eta atzeko aldean zarata entzun. Emozioa adierazten du.

- *Aurkezpena: ideia-, antolaketa- eta garapen-koherentzia*

Gai orokor, -akademiko, -profesional eta aisialdi arloko gai askori buruz hitz-jarioz, eraginkortasunez eta zehatz hitz egiten du. Ideien arteko lotura argi markatzen du. Lokailu eta baliabide asko erabiliz lotzen eta kohesionatzen ditu osagaiak. Gaia ardatz hartzen du eta planteamenduei amaiera ematen die. Diskurtsoak ondo antolatutako egitura du. Puntuei buruzko informazio egokia ematen du eta zenbait gertaeren garrantzia pertsonala azpimarratzen du.

3. Hizkuntzaren erabilera: *adierazle linguistikoak, kohesioa eta erritmoa*

Gramatika ondo menperatzen du; ez dirudi esaten duena mugatzen duenik. Lanera eta mailara egokitutako baliabide linguistikoak erabiltzen ditu. Ahozko aberastasuna eta sormena dela-eta, zehatza da eta ez ditu gauzak errepikatzen, ez zalantzak agertzen. Itzulinguruak ez zaizkio antzematen. Osagaiak zehaztasunez hartzen ditu eta denborak koherentziaz erabiltzen ditu testu osoan zehar. Naturaltasunez moldatzen da, erritmo erregularra du eta etenak zein birformulazioak ez dira antzematen.

4. Zuzentasun formala: *lexikoa, sintaxia, morfologia, ortografia.*

Lexiko zabala menperatzen du. Gramatika ere ondo menperatzen du; ez dirudi esan nahi duena mugatu behar duenik. Formaltasun maila egoeretara egokitzen du. Ideia eta egitura konplexuak erabiltzen ditu beretzat hain ohikoak ez diren egoeretan. Ama-hizkuntzaren eta beste hizkuntza batzuen interferentziaren bat izan dezake. Ondo ahoskatu arren, ama-hizkuntzaren doinua antzematen zaio. Doinua hizkuntzaren eskemetara egokitzen da.

Idatzizko adierazpena

- Hainbat gairi buruzko testu argiak, zehatzak, koherenteak eta kohesiodunak idaztea; xehetasun handiz, lexiko aberatsez eta gramatika zuzenaz.
- Hainbat jatorriko informazioa sintetizatzea eta ebaluatzea; gertaerak kontatzea; testu mota eta komunikazio-egoera deskribatzea, arrazoitzea, konparatzea eta ondorioak ateratzea.
- Baliabide linguistiko ugari erabiltzea, sintaxi konplexua eta testu-gramatika ere erabiliz. Helburua da egoera eta gai askori buruzko testu zehatzak, argiak eta kohesiodunak sortzea, mugak antzeman gabe.

Idatzizko adierazpena eta elkarreragina

1. Komunikazio-eraginkortasuna: *etorria eta naturaltasuna du hitz egiterakoan. Lanaren arabera komunikatzen da eta funtzioak betetzen ditu. Badaki zein den errealitate soziolinguistikoa eta hartara egokitzen da.*

Hainbat gairi buruz jarioetasunez idazten du, betiere bere intereseko gaiei buruz. Gaiak abstraktuak eta konplexuak izan daitezke. Edukia argia da eta funtzioak betetzen ditu. Egoera –formala nahiz informala- ezagutzen du eta hainbat gauzataraz egokitzen da: tratamendura, kortesiara, informazio motara eta informazioaren neurrira, hartzaile eta helburura.

2. Diskurtsorako gaitasuna: ondo antolatutako, kohesionatutako eta garatutako ideiak eta argumentuak

Ideiak koherenteak, argiak eta zehatzak dira. Gaia ardatz hartzen du eta planteamenduei amaiera ematen die. Ez ditu gauzak errepikatzen. Zenbait gertaeren garrantzia pertsonala azpimarratzen du. Lanaren arabera ondo antolatutako egitura du. Komunikazio-helburua betetzeko, puntu garrantzitsuei buruzko informazio egokia ematen du.

3. Hizkuntzaren erabilera: adierazle linguistikoak, kohesioa eta erritmoa

Hizkuntza ondo menperatzen duenez, ez du gaizki-ulerturik izaten. Lanera eta mailara egokitutako adierazle linguistiko asko erabiltzen ditu. Lexiko aberatsari esker, zehatza da eta ez ditu gauzak errepikatzen. Osagaiak lotzeko eta kohesionatzeko lokailu eta baliabide asko erabiltzen ditu. Puntuazioa egokia da. Osagaiak zehaztasunez hartzen ditu eta denbora koherentziaz darabil testu osoan zehar.

4. Zuzentasun formala: lexikoa, sintaxia, morfologia, ortografia.

Baliabide linguistikoi esker, arrazoiak eta xehetasunak erabiltzen ditu idatziz adierazterakoan. Egitura konplexuak darabiltza eta ia ez du akatsik egiten. Lexiko zabala du funtzioak betetzeko. Akats lexikoak noizean behin baino ez ditu egiten eta ez dute komunikazioa desitxuratzen. Ortografia-akats oso gutxi egiten ditu.

AZTERKETA ETA PROBA EREDUAK.

EUSKARA GOI MAILA EDO MAILA AURRERATUKO (B 2)
AZTERKETAREN EGITURAREN ETA EZAUGARRIEN DESKRIBAPENA
ETA PROBA, ARIKETA ETA ATAZA EREDUAK HONAKO WEB ORRI
HAUETAN EGONGO DIRA ESKURAGARRI OTSAILAREN AZKENEKO
ASTETIK AURRERA:

www.eoidonheo.org
www.eoieuskadi.net